




XABIER MINA

Mexikoko
askatasunaren
zutabe



- **Urtzi Urrutikoetxea, kazetaria:** «Agente amerikarra nintzela zabaldu zuten Errusiako inteligentzia zerbitzuek» • **José Saramago** Jon Alonsoren agurra
- **Maria Luisa Elio** García Márquezen Iruñeko laguna
- **Sozioekonomia** Datu berriak Ipar Euskal Herrian



NOBEDADEA

Atlantika

zibilizazioen kode ezkutua



29 euro

ARGIaren harpidedunek
%15eko deskontua

Argitu ezazu antzinako zibilizazioen
kode ezkutua eta bizi milaka abentura
jainkoen laguntzarekin.



+8



2-4



20-40 min.

Eskaerak: 943 36 86 61
info@luditoys.com
www.luditoys.com

Luditoys



Azaleko irudia:
ASISKO URMENETA
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Sorraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Deabruaren abokatua

- **Yogurinha Borova:** «Batuetan neu bakarrik berotzen naiz». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- **Xabier Mina.** Otanoko iraultzailea eta «hirurchunak» Mexikon. BIXENTE SERRANO IZKO / 5

Pertsonaia

- **Urtzi Urrutikoetxea:** «Kurdistanen utzi dut bihotzaren zati bat». UXUE ALBERDI / 12

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 17
- **Ttakun (h)errenka** Ametsen ituna. ANA URKIZA / 18
- **Langileen defentsa.** EIDER ALKORTA / 19
- **Hiruko txikian** Klean. JOXEMARI OSTOLAZA / 19
- **Sinergiaren bideak.** CARMEN VALOIS / 20
- **Txandan** Caravaggio. IGOR ESTANKONA / 20
- **Zirtak** Krisiari, musu. JOSE INAZIO BASTERRETXEA / 21
- **Bertso berriak** Udako jaien aurrekontuari jarriak. XABI PAYA / 22

Erdiko kaiera

- **José Saramago,** txiripa hura. JON ALONSO / 23
- **Maria Luisa Elio:** nola bidaiatu Iruñetik Macondora. GORKA BEREZIARTUA / 25
- **Liburuak** GEMA LASARTE / 26
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 27
- **Ezpalak** JON TORNER / 28
- **Abarrak** UNAI BREA / 29
- **Ihesi Kanbo.** Bi menderen lekuko. ITZIAR MADINA / 30
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Ipar Euskal Herriko datuak.** Hamar urteko hutsunearen ondoren, estatistika berriak. URKO APAOLAZA / 39
- **Iparaldeko argazki berriak.** DANIEL UDALAITZ / 40
- **Gabeziak eta baliabideak** Ipar Euskal Herrian. EGUZKI URTEAGA / 42
- **Euskararen sustapena.** Nola komunikatu asmatu ezinik. ONINTZA IRURETA / 44
- **Bero-beroa** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Turkia, Europa atariko potentzia zahar-berriak. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Txin-txin** (diruaren hutsak). INMA ERREA / 50



“Batzuetan neu bakarrik berotzen naiz”

Yogurinha Borova | Txetxeniarra

Goronghoroko hotzetik etorri zen emakume beroa.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Bloodygold/Bingen Gutierrez

Yogurinha, zure izen horrekin gosea sartu zait...

Ba dastatu, dastatu!

Ui, ausartegia atera zait lehenengo galdera...

Ezta pentsatu ere, gezurak esatea ausartagoa da.

Lurralde hotz batetik etorri arren, badakizu temperatura igotzen!

Ahalegintzen naiz behintzat, baina ez pentsa, batzuetan neu bakarrik berotzen naiz.

Ai, ai... babestutako ordutegian egiten ari garela elkarrizketa...

Lasai, gozoki misterioak baino ez naiz.

EGA duen munduko trabesti bakarra omen zara.

Kondairak horrela dio, baina zorionez, atzetik datorren gazteriarekin laster bukatuko da hori.

Euskara baseritarren hizkuntza dela esango dute gero!

Niri, ohe batean, euskaraz esan dizkidate hitzik politenak!

Baina aktorea izan nahi duzu.

Ez, zoriontsua!

Ez zara konformatzen Carrefourreko kajera izatearekin...

Supertrampekoek ziotenez: *Take the Long Way Home*.

Ikusten dut, *Botox*-a gorabehera, oso naturala zarela.

Batez ere jende jatorraren ondoan...

Batzuk Jose Ramon dira egunez eta gauez Susana; baina Yogurinha Borova, La Rufi, Chuchi Menkes... noiz nor zaren jakiteko lanak!

Lanik handiena dena bukatu ondoren aurpegia garbitzea da!

Eduardo Gaviña ere bazara, tarteka...

Bai, hori da garrantzitsua, bera gabe... akabo.

Identitate anitza esaten diote horri medikuek.

Sormen inkontinentzia deitzen diot nik.

Ezin ipurdia aulkari lotu, beraz.

Sosegurik gabeko mundu batean bizi gara denok. ■

Xabier Mina


Otanoko iraultzailea eta “hirurehunak” Mexikon

Gustura mintzo ohi gara euskaldun unibertsalez, gure urguilu nazionala pizte aldera. Baina gehienetan, historiaz aritzerakoan, gure ahoa betetzen dute inperioen zerbitzura ibili ziren konkistatzaileek eta misiolariak: Elkano, Urtsua, Juan Zumarragako, Frantzisko Xabierreko, Inazio Loiolako... Ezaguna da, halaber, zer paper jokatu zuten arbaso euskaldunak izan zituzten kreol anitzek Ameriketako independentzia gerretan: Bolibar, Iturbide... Ia ezezaguna zaigu, ordea, gerra haietan euskaldun batzuek jokatu zuten paper askatzailea, Xabier Mina kasu Mexikon.

BIXENTE SERRANO IZKO

Xabier Minaren irudia, Ingalaterratik atera baino egun batzuk lehenago. Martin Xabier Mina izenak ezer gutxi erraten die nafar gehienei. Pertsonaia historiko honen izen osoa aipatzerakoan, Frantzisko Xabier Mina deritzote sarri, grabatu honetan edo Mexikon bertan bezala. Mexikoko espedizioaren prestakuntzetan, hala Ingalaterran nola AEBetan, osaba Frantzisko Espozekin –ordurako Fantzisko Espoz eta Mina gisa ezagutua Europa osoan– nahasten zuten hainbatek gure Xabier Mina, eta honi ez zitzaion gaizki etorri nahasmendua, baliabideak eta laguntza errazago lortze aldera; halarik ere, Mexikoko bere aldarrikapen ugaritan, guztietan, Xabier –Xavier, zehazkiago– Mina sinatu zuen.

Nahasi, baita sorterrria ere nahasten diote sarri: Idotzinen (Ibargoiti) jaio izan balitz bezala, bere osaba jaio zeneko herrian alegia. Baina Otanon (Elortzibar) sortu zen Xabier Mina 1789ko uztailaren 1ean, Parisko Bastilla iraultzaile frantsesek hartu baino 13 egun lehenago. Oraindik ikus daitezke haren etxearen hondakinak, urte gutxi duela eroria, Otanoko elizara doan kaleko ezkerrean. Herrixka horren sarreran, informazio kulturalako panel batean, Xabier Mina Estudiantea edo Mutila aipatzen da herriko seme gisa, baina bertze akats batekin, jaiotze datarena alegia: 1789 urte zuzenaren ordez, 1798koa jarri diote.





Xabierren osaba Frantzisko Espozek Mina abizenaz hornitu zuen bere burua historiarako: Frantzisko Espoz Ilundain Frantzisko Espoz eta Mina bihurtu zen. Abizen bahiketa gisa interpretatu dute anitzek, nahiz eta Espozek bere memorietan dioen ilobaren omenez egin zuela, frantsesei adierazteko Xabier Minaren adorea bizirik jarraitzen zuela.

MINGARRIA DA nola ahaztu nahi izan duen Espainiako historiografia akademikoak iraultzaile liberal honetaz, eta ez da harro egoteko nola jarraitu duen ahanztura horretan, inertzia hutsarengatik segurik, euskaldunon memoria historikoak.

Orain gutxi irakurri ahal izan dut txosten-txo bat, euskaraz eta historialari euskaldun batek egina, non, Ameriketako independentzia gerrez mintzatzean euskaldunen ondorengo kreolak aipatzen diren, baita euskaldun batzuk ere. Baina, Mexikori dagokionez, ezertxo ere ez gure Xabier Minaz; areago, honako hau irakurri dut bertan: 1810etik, “hamar urtetan Mexikon inor ez da ausartuko independentzia berriro eskatzen, 1821era arte”. Kolpe batez, Hídalgoen lehen saiotik (1810) Igualako Plana (1821) arte saio guztiez ahazturik. Garai hauek suertatu zitzaizkion Xabier Minari, Mexikon 1817ko apirilean sartu zenetik urte bereko azaroa arte, fusilatu zuten arte...

Ia ahazturik Xabier Mina, bai, gure artean, baina hagitx presentego Mexikoko memoria kolektiboan, hango independentzia gerretako lehen mailako heroi gisa. 1823an izendatu zuten ofizialki Mexikoko Heroi, eta Katedral Metropolitarran lurperatu. Gero, Independentziaren Zutabea eraikitzean (1921), mar-molezko monumentuan kokatu zuten haren irudia, Morelos, Guerrero eta Bravorekin batera Hidalgo inguratzen laurok. Mina izena

eramaten dute, Mexiko ongi ezagutzen duen Manuel Ortuño historialariak dioskunez, “hamarka tokik, plazak, etorbidek, kiroldegik, herritar-zentrok, mexikar Armadako itsasontzi batek, Tamaulipas-eko nazioarteko aireportuak eta bertze hiri nagusi batzuetakoek, Minatitlanekoa (Veracruz) kasu”. Euskal Herrian, hor dugu Otanoko jaiotetxe eroria... sinbolo biribila. Lasaitu txiki bat izan dut Noaingo udalaren webgunean sartu eta hor ikustean Xabier Minari buruzko ohar labur baina interesgarria, bibliografia zerrenda eta guzti horniturik. Txalogarria da Txalaparta argitaletxearen ahalegina ere, 2003an berrargitaratu zuenez Martín Luis Guzmán historialari eta narratzaile mexikarraren 1932ko titulua: *Mina el Mozo. Héroe de Navarra*. Bestetik, Manuel Ortuñok urte anitz daroma Xabier Mina ikertzen; bortz liburu izan dira horren emaitza, eta seigarren batean, *Vida de Mina. Guerrillero, liberal, insurgente* (2008) izenekoan, aurreko liburu guztien berri-dazketa irakur daiteke, dotore narratu eta eguneratua.

Ekintzaile aparta

Ez dugu Xabier Mina teoriarari bat, ezta hurrik ere, baina bere ibilbideak –buru argi eta irekiko ekintzaile batenak– aurrera joan ahala, ideia liberal sendoak nagusitu zitzaizkion, askatasunarekin estu-estu lotuak, eta haici eutsi zien fideltasun irmoenarekin.

Otanoko etxe aberatseneko seme nagusi honek –erran nahi baita lurjabe txikia zela–, euskaldun ama-hizkuntzaz, baina amarekin berarekin erdaraz alfabetaturik, Iruñean ikasketako aukera izan zuen 11 eta 17 urteen artean, eta Zaragozan jarraitzeko gero, matematika eta filosofian. 14-15 urte zituela ezagutu zuen bere lehen maisu politiko-militarra, goizuetar bat, Areizaga koronel ohia, Fernandoren aldeko ultramontanoa gorte espainiarraren liskarretan. Eta hain zuzen Fernando VII.ak lehenengoz koroa jaso zuenean, Zaragozan dugu Minaren berri, ikasle saldo baten buru, Godoy ilustratuaren erretratua erretzen eta Fernandorena haren ordezt jartzen, 1808ko martxoaren 23an. Maiatzaren hasieran, Goyak betikotu zuen Madrilgo matxinadatik hiru egunetara gertatu ziren Baionako abdikazioak, Napoleonek bere anaia Josephentzat koro borboitarra lortu zuenean. Areizagak Fernandorekin joan nahi izan zuen Baionara, baina Irunen jakin zuen Napoleonen jokoaz, eta hortik aurrera konprometitu inbasioaren kontrako gerran. Koronel ohiak Xabier Minari deitu zion Goizuetara, lehenbiziko misioak proposatzeko.

Horrela hasi zuen Minak, 19 urte zituela, bere ibilbidea. Espioi gisa bidali zuen Areizagak 1808ko uda partean Ipar Euskal Herrira, tropa inperialen mugimendu eta planen peskizan, gaztearen euskalduntasunaz baliatuz. Gero, Aragoiko parajeetan ibili zen Areizagaren erranetara beti, harik eta 1809ko abuztuan, 20 urte besterik ez zituela Nafarroako Lehorreko Kortsarioak izeneko gerrillari boluntarioen gorputza antolatu zuen arte, hain ospe handia emanen ziona. Hain handia non 1810eko martxoan frantsesek Labianon atxilotu zutenean, Frantzisko Espoz osabak Mina Dibisioa –Nafarroako Dibisioa gero– jarri baitzion izena Xabierrek eraturiko gorputzari, baita Mina abizenaz hornitu ere bere burua historiarako: Frantzisko Espoz Ilundain Frantzisko Espoz eta Mina bihurtu zen. Abizen bahiketa gisa interpretatu dute anitzek, nahiz eta Espozek bere memorietan dioen ilobaren omenez egin zuela, frantsesei adierazteko Xabier Minaren adoreak bizirik jarraitzen zuela.

Vincenneseko unibertsitate liberala

Ezin dugu oraindik hitz egin Xabier Mina liberalaz. Erregearen, aberriaren eta erlijioaren alde borrokatu baitzuen zortzi hilabete

**Soto de la Marinako
hondartzetan lehorreratu zen
Mina 1817ko apirilean. Hortik
abiatu ziren Minaren
Hirurehunak. Guanajuatorako
ibilaldia epikoa izan zen:
garaipen distirantak, armak eta
hornidurak lortu zituzten tropa
kolonialen lepora**

haietan, 1.800 boluntario bildu zituen unerik garaianetan, baina berak galdetzaile frantsesei erantzutean motz gelditu ez eta 20.000 izango ziratekeela erran zien, arma gehiago eduki izan balu.

Baiona, Paris eta Vincennes izanzen ziren bere kartzelak, beti ere Napoleonek emaniko aginduak lepo gainean izanik, hots, heriotza zigorra luzamendutan ibili gabe betetzeko aginduak. Nolanahi ere, bizirik jarraitu zuen –osaba Espozen hitzetan, berak lortu zion espainiar Erregeordetza Batzarretik militarra zela zioen agiria, frantsesek jo zezaten gerra atxilotutzat eta ez

donostiakultura.com
San Sebastián, ciudad de la cultura

2010eko UDA

Uztailak 8-11
La curva de la felicidad, Pablo Carbonell, Josu Ormaetxe, Jesús Cisneros, Antonio Vico
Antzerkia • Antzoki Zaharra • 20:00 (9, 10, 20:00 + 22:30)

Uztailak 15-18
El pez gordo, Toni Cantó, Helio Pedregal
Antzerkia • Antzoki Zaharra • 20:00 (17, 20:00 + 22:30)

Uztailak 21
Patti Smith and Her Band
45. Heineken Jazzaldia • Musika • Agertoki Berdea • 21:30

Uztailak 22
Christian Scott / Ron Carter Golden Striker Trio
45. Heineken Jazzaldia • Musika • Trinitate plaza • 21:00

Uztailak 23
Dave Holland & Pepe Habichuela / Stanley Clarke Band feat. Hiromi
45. Heineken Jazzaldia • Musika • Trinitate plaza • 21:00

Uztailak 24
The Claudia Quintet / Archie Shepp Quartet + Mina Agossi
45. Heineken Jazzaldia • Musika • Trinitate plaza • 21:00

Uztailak 25
Kris Kristofferson / Elvis Costello and The Sugarcanes
45. Heineken Jazzaldia • Musika • Trinitate plaza • 21:00

Uzt / Abu 29-1
Mamma Mia! El Musical, Nina, Marta Valverde
Antzerkia • Kursaal • 20:00; 30, 31, 18:30 + 22:30; 1: 17:00 + 21:00

Uzt / Abu 30-1
Brujas, Lara Dibildos, Juncal Rivero, Arantxa del Sol, Carla Duval, Cristina Goyanes
Antzerkia • Antzoki Zaharra • 20:00 (31, 20:00 + 22:30)

Abuztuak 3-8
La venganza de don Mendo, Tricicle
Antzerkia • Victoria Eugenia • 20:00 (7, 20:00 + 22:30)

Abuztuak 10-15
Sexos, Adriana Ozores, Pepón Nieto, Anabel Alonso
Antzerkia • Antzoki Zaharra • 20:00 (14, 20:00 + 23:30)

Abuztuak 14-17
Arte, Enrique San Francisco, Javier Martín, Enrique Romero
Antzerkia • Victoria Eugenia • 20:00 (14, 17, 20:00 + 23:30)



Goiko argazkian ikus daitekeen moduan dago gaur Xabier Minaren jaiotetxea Otanon, hondaturik. Kontraste bizian, aukera izan dut erreportaje hau idazterakoan Badajozeko Medellin herrira hurbiltzeko, azteken inperioa deuseztatu zuen Hernán Cortésen jaioterrira hain zuzen, kuriositate hutsez ea nola landu duen 2.500 biztanle izatera heltzen ez den herri horrek bere semearen memoria: bada, Hernán Cortés du izena plaza nagusiak, haren erdi-erdian dute jaun eta jabe konkistatzailearen brontzezko monumentu handiosa (eskuineko argazkian), eta haren etxea zegoeneko lekutik hurbil-hurbil paratu dituzte familiaren kapare armarrria eta ateburu zaharra idulki

baxu baten gainean. Gure harridurarako, plaza berean dagoen udaletxeak, jauregi itxurarekin baina 1950ean eraikia, plaka bat erakusten du eskerronak emanez mexikarrei eraikuntzarako laguntzarengatik. Tira, agian ez dago harritzekorik: azken finean Hernán Cortés gabe ez zuketzen izango aukerarik gaurko Mexikoren jabeen arbaso kreolek estatu independentea moldatzeko.

Aldiz, haien independentzia lortzearen bere dohain aparteko guztiak, bizitza bera ere, eman zituen Xabier Minaren memoria Otanon duin mantentze aldera, Cortésekin bezala jokatu balu Mexikok, ai ene!, ez dakit liskar diplomatikorik sortuko ez ote litzatekeen.

gaizkiletzat—, eta Vincennesen bere maisu liberala izango zenarekin egin zuen topo: Victor Fanneau de Lahorie jeneral frantsesa, Napoleonen aurka konspiratzeagatik 1812ko urrian fusilatua. Lahorierengandik ikasi zuen Minak askatasunaren kontzeptu liberala, hain diferentea *Ancien Régime*ko askatasun edo pribilegioen aldean. “Bertze ezer baino lehen, askatasuna” omen zen Lahorien lelorik kuttunena.

1814ko apirilean lortu zuen Minak askatasuna, Napoleon garaitu zutenean, eta Nafarroa Garaira abiatu zen. Lakarren (Nafarroa Beherea) bere osaba Espozekin egin zuen topo, 11.000 soldaduko Nafarroako Dibisioaren buru zela. Ordurako, 25 urte bete gabe, “zerikusi gutxi zuen [Minak] frantsesen eskuetan erori zeneko gerrillari ado-

retsu eta ilusio hutsez beteriko harekin”, dio Manuel Ortuñok. “Gizon berri bat zen, gartzaroan nozituriko bere ideia orokorrak eta aberriaren aldeko ilusioak aldaturik; oraingoak uste arrazionalagoak, sendoagoak eta, bai moralki bai intelektualki, sakonago erai-kiak zituen”. Horrela bada, Fernando VII.ak Cadizko Konstituzioa indargabetu zuenean, eta osabarekin Madrilgo Gortea bertatik bertara ezagutu ondoren, Iruñeko gotorle-kuia eta hiria hartzeko konbentzitu zuen, erregea behartu nahian Konstituzioa berriro indarrean jar zezan. 1814.eko irailean saiatu, baina porrot egin zuten, azken unean Espo-zen soldaduek ez ziotelako jarraitu euren buruzagiari: Minaren osabaren karisma, Napoleonen kontrako borrokan lausotu ezina izanik ere, ez zen nahikoa izan, antza,



bere soldaduak Fernandoren aurka altxarazteko. Bai ilobak bai osabak Luis XVIII.aren erresuma frantses absolutistara ihes egin behar izan zuten.

Hortik aitzina hasi zen Mexikora joateko Minaren proiektu berria, ideia interesgarri batekin, gero Karl Marx Irlanda eta Polonia-ko independentziaren alde agertu zeneko planteamendua gogorarazten diguna: alegia, Mexikoko independentziak erraztuko zuela Metropolitiko iraultza liberala. Horrela zioen Mexikoko bidaian prestaturiko lehen *Aldarrikapena*-n: “Ozeanotik alde honetako probintzietatik lortzen zituen tiranoak baliabideak bere bidegabekeriak gauzatzeko; hauetan ere askatasunaren alde borrokatzen zutela-eta, nire egin nuen orduantxe amerikarren kausa”.



Gasteizen euskarazko
hauek ez galdu:

DIBERTIKALE

JUDIMENDI

- **Mementu ridiccoli** Uztailak 5, 19:30. Sefarad plazan.

ARIZNABARRA

- **Juga-2** Uztailak 6, 19:30. Zaitegiko gazteluaren plaza.

ARRIAGA

- **Nai malabarista** Uztailak 8, 19:30. GE-ren ondoko oinezkoentzako kalean.

IBAIONDO

- **Zirkua pirritan** Uztailak 11, 19:30. GE-ko plazan.

UZTAILEAN IZANGO DIREN BESTE BATZUK...

- **Udako txotxongiloak**
- **Jazz jaialdia**
- **Aire zabaleko V. pintura eta akuarela lehiaketa**
- **Santiago eguna** (txapelketak, gau jaia Joselu anaiak taldearekin...)

GOZATU NATURAZ ETA ERABILI EUSKARA

- **Zentzumenen ibilbidea** Abuztuak 1. 6 urtetik gorako umeentzat eta familientzat. 20 lagun guztira. ATARIA 11:30-13:30. Izen-ematea: udal webgunea, Ataria, IGI, gizarte etxeak.
- **Mikro txangoa** Abuztuak 15. 4 urtetik gorako umeentzat eta familientzat. 30 lagun guztira. ATARIA 11:30-13:30. Izen-ematea: udal webgunea, Ataria, IGI, gizarte etxeak.
- **Hala bazan... sar dadila Salburuko urmaelan!** Abuztuak 29. 2 urtetik gorako umeentzat eta familientzat. 30 lagun guztira. ATARIA 11:30-13:30. Izen-ematea: udal webgunea, Ataria, IGI, gizarte etxeak.

ABUZTUAN, GASTEIZKO JAIK

- **Kontzertuak euskaraz** Gose, Betagari, Anje Duhalde, Lain + Hesian, Gozategi, Damba, Berri Txarrak
- **Aihotz plaza** Trikitilariak, bertsolariak, musika eta dantza egunero
- **Haurrentzako giroa eta ikuskizunak** Gargantua, txotxongiloak, pailazoak Peñafloredako Kondearen plazan eta abentura gunea eta Okindegia eta Wimbi hondartza Prado parkean

ETA GOGORATU...

Uztailaren 19tik aurrera gizarte etxeetako jardueretan

izena emateko epea hasiko da. Hainbat arlotako jarduerak euskaraz eskainiko dira: euskara ikastaroak gurasoentzat, merkatarientzat eta etorkinentzat, kirol, kultur eta osasun ekintzak...

Kontsultatu katalogoa eta eman izena!

ETORRI ETA GOZATU GUREKIN!



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala



Xabier Mina Mexikon, Juan O'Gorman (1905-1982) arkitekto, eskultore eta Mexikoko muralista handien ondorengo ospetsuenak irudikatua, zutik, lehen planoan eta ezkerrean, *Independentziaren Murala* deiturikoaren zati honetan. Museo Nacional de Historia-Castillo de Chapultepec-en dago ikusgai.


Behean, Xabier Minaren espedizio ibilbidea Mexikon.

“Minaren Hirurehunak” Mexikon

Mina Londresen egon zen 1815eko apirilaren amaieratik 1816ko maiatza arte, eta hor pres-tatu zuen bere ibilbide mexikarra. Harreman estuak lortu zituen Lord Holland Ingalaterra-ko oposizioaren liderrarekin, berau interesaturik baitzegoen Ameriketako kolonia espainiarren askapenarekin. Honela deskribatzen zuen Mina Lord Hollanden idazkariak 1815eko abuztuaren: “Gizon buruargia da, Espainian errebelde eta traidorea delarik Mexikora joan nahi du”.

Ameriketako espainiar kolonien independentzia nahiago zuten nazioarteko potentziek –AEBek eta Ingalaterrak bereziki, nahiz eta ezkutuan beti ere– Mexikon zituzten jarriak esperantza gehienak, Jose Maria Morelosen lidergo militar eta politikoan. Morelosek, Mexikoko independentzia gerra sortu zuen Miguel Hildagoren ondorengoak, Chicalcingoko Kongresua zuen antolaturik 1813ko irailetik, baina garbi zegoen kanpoko laguntza militarra beharko zuela garaile aterako bazen. Minari erreparatu zioten horretarako hainbat eragile ingeles eta estatubatuarrek.

1816ko maiatzaren 15ean Ingalaterratik atera zen eta ekainaren 30ean New Orleansa



heldu. 27 urte bete zituen hurrengo egunean. Itsas ibilaldian bertan eta AEBetako egonaldian lagun batzuen azpijokoak, matxinadak, traizioak eta espainiar espioien joko bikoitzak jasan behar izan zituen. Baina oraindik ez zekien Morelos fusilatua izan zela eta Chippingoko Kongresuak porrot egin zuela. Ondorioz, Simon Bolivarren laguntza bilatu zuen Haitin, eta 1816ko urriaren 13an harekin bildu zen. Liluratu egin zuen Minak *Askatzalea*, eta ia konbentzitu Mexikora laguntzeko. Honela dio Bolivarrek gutun batean: “Oraindik ez dakit Mina jeneralaren etorrerak aldaraziko dizkidan ene planak [Los Cayoseko espedizioaren porrotaren ondoren, bigarrenaren proiektuaz ari da]. Atzo ikusi nuen eta tolesik gabe mintzo izan ginen, erran zidanak esperantza handiak piztu dizkit, eragin dezake horrek nire proiektuetan. Ez nago, halere, guztiz konbentziturik”.

Ez zuen azkenik konbentzitu, baina aurrera jarraitu zuen Minak eta Soto de la Marina-ko hondartzetan lehorreratu zen 1817ko apirilaren 21ean. Hortik abiatu ziren *Minaren Hirurehunak*, haien artean Nafarroako gerrilletan berarekin ibilitako euskaldun batzuk, Mexikoko barnealderantz, Torres gerrillariarekin harremanetan sartu arte. Kostaldetik Guanajuatorako ibilaldia epikoa izan zen: garaipen distirantak, armak eta hornidurak lortu zituzten tropa kolonialen lepura.

Torres matxinatu mexikarra, Morelos desagertu zenetik bertze hainbat bezala, krisi larrian zegoen. Ez zuen plan estrategikorik, ez bazen biziraupen hutsa eta lidergo bakarra lortzea beste gerrilla-buruen artean. Horrela, gotorlekuak galtzen joan zen, eta azkenekoa, Los Remedios-koa, Erregeordeak setiatu eta esperantzarik gabe zegoenean, Guanajuato hiriaren konkista proposatu zion Minak, setiatzaileek hornidura-iturri sendoena galduko zutelakoan. Kostata konbentzitu zituen Minak Torresen aholkulariak, eta hiria hartzera joan zen. Ez, ordea, bere ohiko ofizialekin –Los Remedios gotorlekua defendatzen zeuden–, Torresek emanikoekin baizik: ospe onekoak zaldiz, baina ezgauzago oinezko enkontruetan, kasurako planteatu behar ziren bezalakoetan. Sorpresaz sartu zen hirian 1817ko urriaren 24an, baina sei orduko saioaren ondoren

Minak erretreta agindu behar izan zuen. Ihesan, sekulakoak entzunarazi zizkien ofizial haiei: “Zuen zeregina bete izan bazenute, euren bete egin zuketuen soldaduek, eta gure esku izango genukeen Guanajuato. Jende ezdeusa zarete bere kausaren alde borrokatzen duen edozein gizonentzat”. Eta lizentziatu egin zituen tropak.

Aterpe hartu zuen hiritik gertu, El Venadito lagun liberal baten arrantxoan, gaua pasatu eta urriaren 27ko egunsentian sorpresaz atxilotu zuten tropa erregezaleek; 1810ean Labianon bezala Minaren alarma sistemak huts egin zuen. Berehalako exekuzioa agindu zuen Erregeordeak, eta azaroaren 11n hil zuten azkenean, 28 urte zituela. Mexikoko aldarrikapen ugaritan erlijioarekiko begirunea aipatu bazuen ere, ez zuen eskatu aitortzarik, ezta bere hiltzaileek eskaini ere. Azkeneko gutun bat bidali ahal izan zion euskaraz, ezkutuan, Pablo Erdozain bere betiko laguntzaileari Los Remedios, “kausaren alde irmo jarraitzera, baita hiltzera ere behar bada” aholkatuz. Belauniko eta gibelaz exekutatu zuten, traidore gisa, berak eskatu arren zutik eta aurrez fusila zezaten. Gaur Mexikon, inork ez du gogoratu nahi –madarikatzeko ez bada– Apodaka Erregeordeaz, aldiz Mina dute beren independentziako martiri handienetakoa. ■

Gabriel Aresti
euskaltegia*

Aukera guztiak
zeure esku

*uda
Maila guztiak

- Barnetegiak Bilbon, Bakaikun, "Itsas-Mendi"
- 2, 3 eta 5 orduko ikastaroak
- Ekaina, uztaila, abuztua eta iraila
- 16 urtetik aurrera

www.gabrielaresti.com

San Bizente 2 - 4. solairua - 48001 - Bilbo - tel: 94 423 75 91

Elkarlan

Urtzi Urrutikoetxea

«Kurdistanen utzi dut bihotzaren zati bat»

Isiltasunari mikrofona jarri eta, hara: isiltasuna ez da existitzen.
Motxila hartu eta ahots berrien bila abiatu da kazetaria.

UXUE ALBERDI

Argazkiak: Dani Blanco

Bidaiatzea, zein erraza batzuentzat eta zein zaila gehienentzat!

Bidaiatzean jabetzen zara zuretzat lagunengana joatea zein erraza den, eta lagunak zuek etortzea zein zaila. Europa ze gotortuta dagoen arin ohartzen zara. Orainsu, Istanbulen bizi ginenean lagun europarrek erraz geneukan asteburu pasa Greziara joatea, baina lagun turkiarrentzat izugarritzko buruko mina zen bi egunetarako bisatua lortzea. Bestalde, lan finkorik ez izateak asko erraztu dit bidaiatzea, edozein momentutan, maleta txiki bat prest eduki eta edonora joateko moduan nintzen. Zailena abiatzea da, eta lotzen gaituzten konpromisoetatik askatzea.

Latinoamerikak erakarri zintuen lehenbizi, eta ekialdeko Europak gero. Nola joan da osatzen zure bihotzeko mapa?

Beti egon izan naiz hizkuntza txikiei oso lotua, euskalduna izateak, eta Bilbon euskaldun izateak eragin dit horretan. Bilbon euskaraz bizi naiz, baina badakit anormalitate baten barruan bizi naizela: nire inguru hurbilerako eta kontu afektiboetarako euskara dut, baina eguneroko gauza arruntetan behin eta berriz aldatu behar izaten dut hizkuntzaz. Hizkuntzarekiko kontzientzia txikitatik izan dut, eta beti izan dut sentsibilitatea eta sinpatia antzeko egoeran bizi direnekiko. 1988an edo 89an, nik 10 edo 11 urte nituela, ARGIAk Europako hizkuntzen mapa atera zuen. Mapan, hizkuntza bakoitzak kolore bat zeukan, eta kolore bakoitzaren atzean zer egongo ote zen galdetzen nion neure buruari. Kolore bakoitza leku bati dago- kio eta leku horretan jendea dago, pentsatzen nuen. Zer jendea da? Nola bizi da? Zer dute diferentea alboko kolorearen atzean dauden

pertsonengandik? Bidaiatzeko, liburuak adina erabili ditut mapak eta atlasak, eta mapa politikoak bezala hizkuntzen mapak. Hizkuntza gutxitua daukagun guztiok antzeko esperien- tziak daukagu Europan eta Ekialde Hurbi- lean: zer da gure hizkuntza? Etxerako hizkun- tza da? Kanporako balio du? Antzinako munduarekin loturiko zerbait da? Mundu modernorako balio du? Horrelako diskurtsoak han eta hemen entzuten dira, leku batzuetan aurreko belaunaldietatik datoz, eta beste asko- tan orain-oraingo kezkak dira.

Urteekin aldatu egin da zure bidaiatzeko modua?

Bai, asko. Bidaiatzea beharrian bilakatu da jende askorentzat. Badirudi, norbait izateko, gure hipotekaz eta lanaz gain gure bidaien curriculumaz izatera ere behartuta gaudela, eta bidaiatzeko behar horrek puntu kontsumista nabarmena du. Nik beti izan dut hainbat leku ezagutu nahia, baina lehen, hara joan eta porrot sentsazioa izaten nuen. Lekura iristen nintzen eta pentsatzen nuen: hau da, beraz, halako eta halako gertatu zen lekua... eta? Orain jendea da bidaien oinarria: lagunak egitea, jendea aurki- tzea eta haiekin egotea, geografiara pertsonen bidez iristea. Orain, bidaiatzea, batez ere, per- tsonen bilaketa da niretzat, eta itzultzea, biho- tzeko mapara behin eta berriz itzultzea, Kur- distanera, batez ere.

Euskaldun izateak zertan eragiten dizu bidaiatze- rako orduan?

Kanpora zoazenean “nongoa zara?” izaten da aurreneko galdera, eta espainiarra, frantsesa edo australiarra izatea normala da, baina eus- kalduna izatea ez. “Euskalduna naiz” esateak distantzia markatzen du. Alemanian askotan

Nortasun agiria

Urtzi Urrutikoetxea Vacas Bilbon jaio zen 1977ko urriaren 12an. Kazetaria eta idazlea da, eta bertsotan eta itzulpengintzan jarduna. ETBko albistegietan eta hainbat kazetatan aritutakoa: *Euskaldunon Egunkarian*, *Berrian*, *Garan*, *Jakinen*, *ARGIAN*... Azken urteetan munduko hainbat txokotan aritu da *free-lance* gisa lanean: Guatemalan, Mexikon, Haitin, Puerto Ricon, Kolonbian, Venezuelan, Turkian, Iraken, Kurdistanen, Abkhazian, Hego Osetian, Txetxenian, Kosovon, Albanian, Israelen eta Europa eta Afrikako beste herrialde askotan. Berlinen berriemaile izan zen. Hiru poesia-liburu, bidaia-liburu bat eta eleberri bat argitaratu ditu: *Borroka galduetatik gatz* (1997, Susa); *Gaur ere ez du atertuko* (1998, Arabako Foru Aldundia); *Utzidazu karmina kentzen* (2000, Kutxa); *Auzoak* (2005, Susa) eta *Afrika Express* (2008, Elkar). Hamaika Telebistak Bilbon duen egoitzako zuzendaria da.





galdetzen zidaten: “Euskalduna zara, beraz, nazionalista, ezta?”. Espainiarra zarela esanez gero inork ez du zuzenean nazionalista zarenik pentsatzen. Istanbulen bizi izan naizenean lagun espainiar dezente izan ditut, eta ohartzen zara ze eroso den espainiarra izatea: lasai asko, zure buruari nor zaren galdetzen aritu beharrik gabe, identitate arazorik gabe... Atsegina behar du: talde handi bateko kide zara, normala zara, jendeak badaki ze taldetakoak zaren, identifikagarria zara, ez zara susmagarria. Eta euskaldunok beti aritu behar dugu “barkatu, baina ni ez naiz zuen taldekoa” esaten, “nire taldea beste txikiago bat da”. Era berean, leku askotan sinpatia berezia, interesa sortzen du euskalduna zarela esateak. Ni izan naizen leku askotan euskaldun agertzeak badu plus bat, eta ate asko ireki dizkit.

Notiziak bilatu eta kontatzeaz gain saldu ere egin behar izaten ditu *free-lance* dabilenak. Saldu beharrak zertan eragiten dio kazetariari?

Euskal prentsa idatziko sektore zabal batekin ez dut arazorik izan nahi nituen istorioak nahi nuen bezala kontatzeko. Telebistan eta ikus-entzunezko medioetan zailtasun handiagoak daude. Ikus-entzunezkoak lan egiteko beste

ikuspegi batekin aritu behar zara: kasu horretan, istorioak irudiak dira, eta istorio garrantzitsu batzuek ez dute irudi ikusgarriarik. Beste batzuetan, oso istorio gogorra ari zara grabatzen, eta ikus-entzunezkoak fribolitate puntu hori kutsatzen dizu. Esaterako, pentsatzen duzu: “Hankak grabatu ahal izango dizkiot hankarik gabeko honi?”. Eta gaizki sentitzen zara. Zure buruari esaten diozu, zoaz istorioa entzutera eta kito. Saldu behar horrek fribolizatza edo gaiari beste era batera begiratza era man zaitzake.

Gerran eta gerra ostean dauden herriak ezagutu dituzu. Euskal Herrian askotan aipatu izan da gerra osteko isiltasuna. Isiltasun hori aurkitu duzu beste herrialdeetan ere?

Lekuaren arabera. Kosovon, esaterako, irabazleak dira, independentzia lortu dute, indartsu eta kontatzeko gogoz daude. Iranen, oster, beldur handia ikusi dut. Gertatu zait semea heriotzara kondenatua daukan ama ezin elkarrizketatzea elkarrizketak semearen aldeko kanpainan lagun zezakeela jakin arren. Beldurra. Halakoetan, kazetari bezala konpromiso altua ari zara hartzen, eta ez dakizu betetzeko gai izango zaren. Amak semearen istorioa kontatzen badizu, erantzungo diozu berak espero duen neurrian, berak behar duen moduan? Ama ere inplikatu dezakezu, konpromisoan jarri, arriskuan... Txetxenia, berriz, gerra galdu duen herria da eta erabateko eskizofrenia aurkitu nuen. Behin eta berriz bahitu eta torturatu duten pertsona batekin egon nintzen, eta esaten zidan ausartuko balitz armak hartuta mendira joango litzakeela momentuan bertan... eta handik bi minutura esaten zidan, “jo, baina gure presidenteak ze polita utzi duen hiria”. Beldurrak jotako jendea ikusi dut, kontrola eta oreka erabat galduta duen jendea.

Harkaitz Canori entzun nion behin, poetak zoritarren aurrean zatituta izaten duela barrua, batetik pena sentitzen duela, baina bestetik “ze poema ona” pentsatzen duela. Berriemaileari antzeko zerbait gertatzen zaio?

Bai eta, gainera, *free-lance* izateak jendearekiko oso harreman estuetara eramaten zaitu, asko enpatizatzen duzu jendearekin eta une batzuetan ia-ia militante sentitzen zara, eta gero distantzia hartu beharra dago. Eta kontrakoa ere gerta liteke, pentsatzea norbait kontatzen ari zaizuna ze ondo saldu daitekeen, edo grabatzen ari zarela irudietan pentsatzen hastea, zeinen ikusgarriak diren, zeinen ondo geratuko diren... eta gaizki sentitzen zara, norbait bere istorioa eta bere sentimenduak azaltzen ari zaizu eta zu erreportaje horrek izango duen forman pentsatzen. Zentratzen jakitea da kontua.

Nola uztartzen dituzu politika hotza eta istorio humanoak?

Nik gustuko dut politika lehorra eta gordina, zifren politika irakurtzen dut eta gustatzen zait, baina aitortu behar da, eta azken joerak hortik doaz, gauzak ahalik eta humanoen eman behar direla, zifra horien atzean nor dagoen azalduz. Badu arrisku puntu bat, hala ere: fribolizatzea eta istorio pertsonalak egoera orokor bat azaltzeko aitzakia moduan erabiltzea. Erdibidea topatu behar da.

Ez zara zapuzten istorio batzuek, larriak izan arren, duten oihartzun apala ikusita?

Arazoa da albisteen justaposizioan zein gailentzen diren, beti baitaude nazioarteko hiru-lau albiste beste guztiak estaltzen dituztenak. Beste ezerk ez dauka lekurik, eta min egiten du. Maiatzean lau kurdu urkatu zituen Iranek eta data horietan uranioa aberasteagatik zigorrik jarriko ote zioten ala ez eztabaidatzen ari ziren Brasil eta Turkia. Lau kurdu urkatu berri zituzten, baina inori ez zion axola. Halakoek nazkara-egi egiten zaituzte ofizio honekin baina, zorionez, Euskal Herrian badaukagu istorio horiek non kontaktu.

Momentu latzak eta momentu pozgarriak jaso dituzu hitzez eta irudiz. Zeintzuk dira burutik inoiz ezabatuko ez zaizkizun argazkiak?

Kosovora bigarren aldiz joan nintzenean, abendua zen eta independentziaren zurrumurrua zebilen, baina ez zen izan. Otsailean berriro zioten bazetorrela, eta nik banekien herri baten independentzia eguna ezagutu nahi nuela. Iritsi ginen momentutik, hotelean sartu eta jendearen irribarreak ikusten genituen, jendearen poza, mozkortuta baleude bezala zen, pozez mozkortuta... Asteburu osoa izan zen oso berezia, baina, batez ere, independentzia aldarrikatu zuten momentua: igandez izan zen, arratsaldeko 15:00etan, izugarritzko hotza egiten zuen, jaia sekulakoa zen hiri osoan, eta kazetari gehienak leku berean bilduta geunden, denok elkar besarkatuz, malkotan... Kanpotik begiratuta, jaiak fribolitate puntu bat izan zezakeen, futbol ospakizun baten antza izango zuen akaso, baina hor atzean sufrimendu asko zegoen, ilusio asko eta azkenean lortutako ametsa. Ez zait behin ere ahaztuko hainbeste sufritutako herria bere ametsa lortzen ikustean sentitutakoa. Hori izan da momenturik pozgarriena. Jakina, kontrakoak ere ikusi ditut, oso istorio gogorak, desagertuen senideak, gerrako haurrak, aireportuan noiz arte jakin gabe bereizten ziren familiak...

Herrialdeak adina polizia eta segurtasun indar ezagutu dituzu. Mugak eta mugen zaintzaileak. Arazorik izan duzu alde horretatik?

Egoerarik txarrenea Txetxenian bizi izan nuen, eta gerora jakin dut askoz larriagoa izan dela. Ingushetian nengoela birritan atxilotu ninduten eta, gainera, *checkpoint*ean espainolez zekien polizia bat jarri zidaten. Itxura txarra hartu nion, eta handik alde egiteko momentua zela erabaki nuen. Etxean nintzela, Unai Aranzadik idatzi zidan, orain Suedian bizi den *free-lance* batek, eta esan zidan ni izan nintzen desagertuen elkarte berean izan zela Ingushetian, eta bertako mutil batek kontatu ziola, nik alde egin eta bi hilabetera, nire itzultzaile izan zen gizona atxilotu egin zutela. Bi hilabetez izan zutela bahituta, sekulako torturak egin zizkietela, gu bion argazkiak erakusten zizkietela eta esaten ziotela agente amerikarra nintzela. Hori gertatu eta gero, aurtun Abkhaziara joan naizenean antzeko zerbait gertatu zait. Abkhaziako Gobernuarekin aspalditik egin izan dut lan, eta nahiko harreman onak ditut, baina iritsi nintzen eta hango elkarte batean egon ostean, galdetu zidaten: "Aizu, ze galdera egin dizkiezu?". Galdera normalak egin nizkiela esan nien baina, gobernuak ezagutzen ninduten arren, elkarte hartara kazetaria nintzela erakusteko zerbait bidaltzeko eskatu zidaten. Agente amerikarra nintzela uste omen zuten. Eta esan nuen, hau ez da kasualitatea: Txetxeniako torturatzailleek nire itzultzaileari esandakoa eta Abkhaziara etorri eta zurrumurru bera. Kasualitatea? Ezin liteke, argi dago FSBk, lehengo KGBk hori zabaldu nahi izan duela.

Geroztik hitz egin duzu itzultzaile izan zenuen gizonarekin?

Berarekin zuzenean ez, beldur da, ez du hitz egin nahi, baina bitartekarien bidez ari gara saiatzen. Elektrodoak aplikatu zizkieten, eta irtendakoan ebakuntza egin behar izan zioten. Orain oso-oso beldurtuta dago. Gizon apalapa zen, sekula itzultzaile lanetan aritu gabea, lagun baten lagun baten bidez ezagutu nuen: ingeles irakaslea zen, langabezian zegoen, eta nik errusieraz oso-oso gutxi dakidanez, pare bat egunean elkarrekin lan egitea proposatu nion. Pozik hartu zuen. Baina halako harremanak, batzuetan, ze arriskutsuak diren ikasten duzu. Gizona beldurra jota dago, ea handik ateratzea lortzen duen.

Gatazkak, gerrak, injustiziak... erakusten dizkiguzue, baina ez al gaude anestesiaturik?

Bai, frustrazio hori sentitzen da. Hala ere, lehenengo eta behin autokritika egiten dut, bai baitaude jendea mugiaraztea lortzen dutenak. Badaude talde batzuk etengabeko lanean ari direnak eta, kasu batzuetan, lortzen dute jendea kontzientziaraztea, hurbiltzea. Euskal Herrian, esaterako, sinpatia handia dago Palestinarekiko, Sahararekiko, Latinoamerikarekiko,

Piknika Iraken

"Gerrilla kurduarekin lehen aldiz egon nintzeneko irudia da. Kasu honetan Iranen aurka borrokan diharduten PJAK gerrillako kideak dira. Egun osoa mendi zoragarrien artean eman nuen bizpahiru gerrillarekin eta bertako familia batekin, eta biharamunean jaitsi ziren gainontzekoak. Emakumez osatutako komandoa zen, mugaz gaindi Iranen menpeko Kurdistanera joateko prest. Elkarrizketa egin, eurekin bazkaldu eta halaxe alde egin nuen, horietako batzuk laster hil zitzaketela jakitun. Eta mendebaldean ia inoren babesik gabe, Iran Estatu Batuen etsaia izanik, ezkerrek ezikusi egiten baitie erregimen horrek kurduen, emakumeen, komunisten eta abarren aurka egiten dituen desmasiei.

Menditik jaistean, hainbat kurdu ikusi nituen baso batean piknika egiten, udaberriko egun ederra zen. Grabatzea erabaki nuen. Telebistan horixe hartu zidaten Iraken piknika gauza



bitxia zelakoan, baina gerrillaren bideorik ez. *Berrian* baino ez genuen lortu elkarrizketa ateratzea. Horiek dira askotan *freelance*aren miseriak, lanik duin eta txukunenak non atera ez dituzu izaten, eta azaleko istorioak hartzen dizkizu telebistak".

bere egunean Nikaragua eta Kubarekiko... Nik, aldiz, Kurdistanen utzi dut bihotzaren zati bat, horrek harrapatu nau, baina egia da kausa honekin ez dugula jendearengana iristea lortu, hizkuntza gutxitua duen herri bezala hurbilen daukagun herria izan daitekeen arren.

Sarri egokitu zaizu Kurdistango egoera politikoa eta Euskal Herrikoa alderatzea?

Bai, Istanbulen nengoela, adibidez, DPP alderdi kurdua legez kanpo utzi zutenean NTV telebistakoekin hitz egin nuen Batasuna kasuaz. NTV Amerikako telebista baten adar turkiarra da, eta DPPren kasua Batasunarekin konparatzen zuten. Turkiako lehen ministro ordeak ere DPPkoei mehatxu egin zuten alderdia legez kanpo utzi baino hiruzpatalu egun lehenago: "Adi zer esan duen Estrasburgok Batasuna kasuari buruz", eta errotulua ere hala jarri zuten: "DPP Batasuna al da?". Konparaketa etengabe gertatzen da, baina konparaketa baino interesgarriagoa da zubi lana egitea, kurduak etortzen direnean hemengo kontuak erakustea eta hangoa ezagutu eta ezagutaraztea. Dena ezin da konparatu. Abdulá Ocalanen abokatuarekin egon nintzen batean Euskal Herriko zein ideia neukan galdetu zidan, eta nire ustez herri bezala irauteko euskaldunok estatu propioa behar dugula erantzun nion. "Ondo, ondo" esan zidan, eta joan egin zen. Bost minutura independentziaren ideia hori baztertu egin behar genuela esanez itzuli zen. Kurduak orain, ofizialki, baztertu egin dute estatu propioaren ideia, estraofizialki jende gehienak estatu kurdua nahiko lukeela uste dudana arren. Baina dena ez dago norbere prismatik begiratzerik, azken beltzean, konparazioak konparazio, herritarren borondatea errespetatzen den ala ez da kontua, eta hori da juxtu Kurdistanen eta Euskal Herrian gertatzen ez

dena. Kontua ez da herri bakoitzaren estatusa zein den, herritarren hitza errespetatzen den ala ez da gakoa.

Une honetan atzeritar bati Euskal Herriko egoera politikoren kronika egin behar bazen?


Gure herria oso momentu interesgarrian dagoela esango nioke: fase baten amaieran gaudela uste dut. Independentziaren alde dagoen sektoretik bada apustu bat, ETaren bidea azkenetan dagoela uste dut, eta horrek Euskal Herriak aspalditik duen egitasmoa lortzeko bide bat agortzen du, bide bat itxiko du. Uste dut, independentziaren aldeko jende gehienak ikusten duela, zapalkuntzak zapalkuntza eta Espainiaren ukazioa betikoa izanda ere, armen bidea agortu egin dela, Euskal Herriarentzat kaltegarri dela eta, aldiz, Espainiari aitzakia handia ematen diola gure ukazioan, zatiketan eta errepresioan sakontzeko. Uste dut badatorrela benetako fronte independentista bat Espainia atakan jarriko duena. Galderari erantzun beharko diote: zer zara lehenengo, espainiarra ala demokrata?

Nazioarteko kazetaritzatik Hamaika Telebistara. Zer moduzko lur hartzea?

Oso esker oneko nago lan hau eskaini didatelako. Martxan zegoen proiektu batera iritsi naiz, oraingoz apala eta txikia da, baina etorkizun handia daukan euskarazko telebista izango dela uste dut. Oso ondo pentsatutako proiektua da, herri telebistetatik sorturikoa izan arren bokazio nazionala ere baduena. Gure erronkak ahalik eta gehien hedatzea eta erreferentzialtasuna lortzea dira. Euskalgintzan eta euskal prentsa idatzian badauzkagu erreferente batzuk, eta telebistan ere lortu behar dugu erreferentzialtasun hori. Hamaika Telebistak ahotsa emango die euskaraz diharduten guztiei, eta ahalik eta hurbilenekoa izaten saiatuko da. ■

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Ametsen ituna

E

derrak dira bai, Ixiar, Yeats poetaren hitzak edo pasartea: “Zure oinen azpian zabaldu ditut nire ametsak,

goxo ibili beraz, nire ametsen gainean baitzabiltza”. Esanahi asko bilbatzen dituen, edota egoera askotan aplikatu daitekeena. Niri neuri, ekainaren 11n Lehendakartzan egindako Euskara Aholku Batzordearen bilera datorkit gogora. Urtebete luzez, hau da, gobernu aldaketaren ostetik, bildu gabe ginen eta *Itun berri baterantz* izeneko Euskara 21 egitasmoarekin bukatu genuenez aurreko legealdia, behingoz, alderdi guztien oniritzia lortutako dokumentuarekin, bada, jakin-mina genuen euskara aholku batzordekideok harako dokumentuaren ibilbidea zein izango ote den ezagutzeko, gobernu berria egindako lanaz eta lortutako kontsentsuaz baliatuko ote den jakiteko, eta, jakin-mina baita, aurrerantzean Euskararen Aholku Batzordearen egitasmoak eta lan-lerroak zeintzuk izango diren jakitera emateko.

Lopez lehendakari jaunak egin zion bilerrari sarrera, Urgell andreak Gobernuaren lerro ideologiko nagusiak aipatu zituen kulturari eta euskarari dagokionean eta Auzmendi andreak azaldu zituen, ondotik, Euskara Aholku Batzordearen zereginak datozen urteotarako.

Hiru ideia geratu zitzaizkidan: bata, Urgell andreak, euskara ez dagoela galtzeko zorian baieztatu zuela. Euskara dakiten hiritarren kopurua igoz doala aipatu zuen, euskararen egoeraren gainean egin izan diren etorkizuneko irakurketak alarmistatzat joz. Bestea, Auzmendi andreak Euskara Biziberritzeko Plana berrikusi eta Euskara 21 garatzea izango direla aipatu zuela Euskara Aholku Batzordearen lan-ardatzak.

DANI BLANCO



Ana Urkiza



Padrón



Rozas

Baina lehenbizi, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari (EBPN delakoa) izena egokitzeak hasi beharko dugula, bere hitzak erabiliz, “euskarak ez baitu biziberritzeko planik behar, bizirik dagoenez gero”. Eta hirugarrenik, Gobernuak politikoki oso markatuak dauzkan ildoak marraztu dituela, oso

bide zuzena baina estua erakusten dutenak.

Eta hiru ideia hauekin, Yeats poetak bere esalditxo horretan aipatzen duena bezalaxe sentitu ginela esan nezake gehientsuenok: “...goxo ibili beraz, nire ametsen gainean baitzabiltza”.

Han ginen, bai, José Luis, betiko nasan, zutik, ordu hartan ordu hartakoak, baina berriro objektu arantza baten aurrean paratu ginen susmoa daukat. Euskara eta horren inguruan pizten diren gogoeta, bizi-pen, esperientzia eta sentimendu ororen aitzinean. Eta politikari dagokio arantza baten diren objektu konplexu guztiekin gertatu ohi den bezala, objektu horiei arantza kentzen saiatzea edota arantza baten diren larruei buelta ematen jakitea.

Behingoz, Euskara 21 itunarekin lortu zelakoan geunden: denon ametsak arrautza otarra berean jarri genituelakoan; eta goxo genbiltzalakoan, bai baikenekien, guztien ametsen gainean genbiltzala.

Hauxe beraz eskatuko nioke nik orain gobernu berriari eta legealdi berrian lan egingo duen Euskara Aholku Batzordeari: ez ditzagula, animaliek egin ohi duten bezala

– bizirauten jarraitzeko makinatzen dituzten tranpetatik ihes egiten–gure lan indarrak xahutu, eta ekin diezaiozula ehuntzeari; hau da, aurreko lanen hondakinetatik sortutako humusa profitatzeari, guztion ametsen oinarria baita, eta arantza askotatik, jada, nahiko askea. ■

«

Euskara Aholku Batzordeari eskaera: ez ditzagun, animaliek egin ohi duten bezala –bizirauten jarraitzeko makinatzen dituzten tranpetatik ihes egiten–gure lan indarrak xahutu eta ekin diezaiozula ehuntzeari

»

Eider Alkorta

POLITOLOGOA

Langileen defentsa

Espainiako trantsizioa bezala izendaturiko aldian planteatzen zen erreforma edo hausturaren arteko hautua, politikan sarri egin beharrekoa izaten dela nabarmen geratu da azken denboraldian. Erreformaren aldeko apustua egin dute gobernu ezberdinek eta etxearen zimenduak gehiegi mugitu gabe uretatik burua nola aterako garen erabaki dute, ia ura lepoan genuenean. Finantza sistema eta bankuetxeak ukitu ezin omen direnez —erreformaren markoan—, beste neurri edo adabakiak aplikatu dira, gastu sozialaren murrizketa eta lan merkatuaren erreforma erakusgarri. Argudioa, ez dago besterik, neurriak hartu ezean denak itoko gara.

Haustura. Herritarren eskubideen murrizketa dakarten neurriak ezin dira onartu eta urteetan langile mugimenduak lorturikoari ezin diogu orain bizkarra eman, gobernu batek, gehienek, etxeko-lanak gaizki egin dituztelako eta politika ekonomiaren aurrean makurtu delako. Neurrien berririk ez dut, elkarbanatu ditzakegun argudio filosofiko eta ideologikoak bai.

Nola erantzun hein batean ahaztuak izan diren kaleratuei, EEEen dagoen langile bati eta greba egunean lanerako deitu diotenari. Konplexua. Erreforma neoliberalak ez dute kon-



IÑIGO AZKONA

ponduko arazoa, sustraikoa da, eta langileen eskubideen defentsaren ikurra hartu dute denek, sindikatuak, Alderdi Popularrak ere, oposizioek. Sindikalgintzaz hitz egitea gurean surrealista da, sindikatuak ere ere duez mintza beharko genuke. Langile askok ordea, euren burua, gero eta urrutia- go ikusten dute sindikatuetatik.

Merkatuaren dualizazioaz mintzo dira eta askok defentsa dualizatua praktikatu dutela ahaztu dute, prekarietateaz mintzo dira prekarioak oso gutxitan egon direnean negozi- azio mahaian. Maiatzaren 25ean euskal sin- dikatuen gehiengoak greba deialdia egin zuen sektore publikoan esku- bide sozial eta zerbitzu publikoen alde. Enplegatu publiko eta afilia- tuen soldata murrizketek zerikusi gutxi omen zuen deialdiarekin. Litekeena, baina horrela zioen greba egunean Metro Bilbaoko sin- dikatuen komunikatuak: “Ados gaude greba deialdiarekin baina ez dugu gure enpresan deitu, protesta ekintzak eta neurriak murrizketak gure enpresara heltzen direnerako utziz. Hori bai, errespetatzen dugu greba egin nahi duenak greba egiteko duen eskubidea”.

Besterik ez genuen behar! Sindikalista batzuen instituzionalizazioak ez dezala ezere- zean utzi historian langile mugimenduak eta borrokak erakutsitako duintasuna. ■

« Sindikalgintzaz hitz egitea gurean surrealista da, sindikatuak ere ere duez mintzatu beharko genuke »

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Ginen, gaztetan denbora guretat izan ez genuenok. Gehiengoa. Heren bat, gazte unibertsitarioz osatua. Irakaslea eri, ordezkari bat ekarri digute, hondar hilabetearen bere jakinduria ematen saiatu dena. Eta asmatu. Azterke- ta garaia. Irakasle titularra saiatu zaigu ordezkapenak kalte egin ez diezagun. Ongi joan da, pasatu behar zute- nak pasatu dira, aurrera egiteko arazoak zituztenak —ez titularrik ez ordezkorik— irailerako gelditu dira. Emaizak aurkeztu ondoren, askaritzo bat egin dugu. Bigarren tra- goz, Sanmartzialak aipatu ditu ordezkari donostiarrak. Eta Alardea zen noski aipamenaren sustrai. Hemeretzi-

Klasean

tik, bat isilik eta beste bat ordezkariaren alde. Hiru horiek ezik, guztiak irundarrak eta hondarribiarrak. Ez gaituzte jan, askari gaiei esker. Ez dakigu deus, ez dugu ezer ulertzen. Orain arazoa ez da Alarde mistoa, orain berritzear eta buka- tzear dagoen San Joan plaza dute eztabaidagai. Joan dai- tezela mistokoak ahal duten lekura, gu betikotan orain- goan ere. Izan ere, mistokoek beti egin izan dute berea gehiengoa kontutan hartu gabe. Ez dira demokratak, inposatzaileak dira. Alferrik hiruek jaurtitako argudioak, musika garaikidea ez da betikoen belarrirako egina, musika atileko grafia dutenentzat. Txilibitoz pasako dute azterketa, tribunala ere txilibiteroa baita. ■

Carmen Valois

IRAKASLEA

Sinergiaren bideak

Lerro hauek argitaratu orduko 2010eko Sanferminak ate joka izango ditugu. Oso gutxi falta da, eta dagoeneko, Festaren urteroko aurrekariak agertzen hasiak dira Iruñeko karriketan: Caritas-eko tonbola, entzierrorako taulak, parrandarako planak, erakusleioetako arropa zuri-gorria...

Eta uztailaren zazpian, hain zuzen, bi urte beteko dira Nagore Laffage eraila izan zenetik. Segur aski, bi urte hauek oso latzak izan dira Laffage familia eta Nagore maite zituzten ingurukoentzat. Eta nago, jaiak hurbiltzearekin batera, oinazea areagotuko zaiela.

Pentsamendu honek bere amaren irudia dakarkit. Gogoan dut Asun Casasola, kalean zein epaitegian. Gogoan dut haren aurpegia, haren gorputza: haren mintzorik gabeko dolua, haren sabelaren haustura irekia. Gogoan dut bere duintasun isila. Bere etsipena epaiaren berri izaterakoan. Eta ondo gogoan dut ere, epaiak berak gizartean sortu zuen alarma soziala eta egonezina.

Horregatik, biziki poztu naiz Helena Tabernaren asmoen berri izan dudanean. Izan ere, zinemagile nafarraren hurrengo proiektua erailketaren inguruko dokumental bat egitea da. Egia aitortuz, asko poztu naiz, eta ez baka-



DANI BLANCO

rrik filma emakumeen biolentziaren aurka-ko aldarria izango delako. Zinez poztu naiz, batez ere, Casasolak egindako bideari testigua hartzera datorrelako, nolabait, indarrak batzera datorrelako: gertatutakoa eta sufritutakoa esparru partikularretik unibertsalera eramanez, sinergia berri bat sortuz.

Ukaezina baita zinema hausnarketarako lantresna ezin hobea dela, sentimenduak islatzeko dohain berezia duena, eta nola ez, ahanzturaren aurkako ezinbesteko elementua dela, memoriarako testigantza bizia. Eta imajinatzen dut Asun Casasola pantailaren aurrean, baketsu, egindako guztiak merezi izan duela pentsatzen. Bere alabaren oroimen eta duintasuna salbu daudela irudikatzen, hor nonbait, ukiezinazko espazio batean, aske.

Eta sinetsi nahi dut mundu justuago bat eraikitzea posiblea dela. Badagoela beste justizia mota bat, hemengoaren gainetik dagoena; preseski, memoria kolektiboak egiten duena: preskribitzen ez duena, gudan bizirik mantentzen dugun bitartean, iraungitze-datarik ez duena. Eta bururatu zait, metaketa horretatik lortutako askatasun-eremuak sinergiarako bide berriak irekiko dituela, Nagoreren oroimenez. Eraildako emakume guztien oroimenez. ■

Imajinatzen dut Asun Casasola
pantailaren aurrean, baketsu, egindako
guztiak merezi izan duela pentsatzen.
Bere alabaren oroimen eta duintasuna
salbu daudela irudikatzen

TXANDAN

Igor Estankona



Michelangelo, San Sebastiango kanposantuan aurkitu ei zaituzte azkenean, Toskanako azken olioak ia urtebete egin duenean, eta zure gorpuak lauhun. Zirriak egingo dizkiete zure hezurrei, DNA frogak egingo dizkiete Italiako Merisi guztiei, baina ez zaituzte aurkituko.

Argia nahierara erabili zenuen hori, klasikotasuna arbuia zenuen hori, Pizkundera ukatu zenuen hori, nola erakutsi zenuen hain maisuki, min emateraino, naturala zena? Nola kabitzen zen hainbeste edertasun desberdin margoen berunak jandako zure zere-

Caravaggio

broan? Itxura onen aurkako borrokalari hori, zoroaldi saturnotarrei esker psikologian arakatu zenuen hori, mila esanahi veneziarren artista, maitasun androginoena, faltan botatzen ditugu zure argazkiak, zure Adan, zure Magdalenak, zure pasatutako sagarrak otzaretan.

Zuzen zenbiltzan: Jainkoaren Erreinua gauza miserableenetan dago.

Caravaggio, tratu txarren auzietan, aizkorakadetan eta labankadetan nahasia, abadeek babestutako hiltzaile, papar zabal iletsudun gizonen amorantea, behar zaitugu gaur egun, txulo hori, baina ez zara itzuliko, ezta? ■

ZIRTA

Jose Inazio Basterretxea

IDAZLEA

Krisiari, musu

Hura negu beltza, udaberria behar zuenean. Hutsik zeuden kaleak. Museoak eta elizak, jolastokiak eta parkeak, denak hutsik. Lau hilabetea, ezereza egin zen gabeziaren jaun eta jabe.

Hamaika errekastoren gainean eraikitako herri hartan, *zero* eta *batere ez* hitzak egin ziren elkarriketa denen giltza. Beste erantzunik ez zebilen jendearen ahotan. “Zein nota atera duzu hautaprobetan?”. Zero, zioten. “Joango al gara medira, igandean?”. Ez dut gogorik batere.

AURBERAN GALDUAK. Ezinegon larri hartan, datila orbaindu zitzaion palmondoari. Gerezia eta sagarra lehertu zituen txingorrak. Tipula usteldu, sargoriak. Hondamendi hartan, segituan agortu ziren errekek. Erre egin ziren mahastiak, mendiak eta basoak. Gain-beheratu parlamentuak eta herriko-etxeak... Eta, delako krisi bati leporatu zioten gaitz denen gaineko errua.

“Nork dauka krisi horren errua?” galdetu zuen baten batek.

Bildu ziren Hogeita Zazpi Gobernariak, erantzuna bilatzeko. Sinodora deitu zuen Elizak, kristauei argibideak emateko. Mekara joateko gonbita egin zien profetak fededunei. Manifestazioan elkartu zituzten langileak sindikatuek.

“Norena da erruaren errua?” idatzi zuten filosofo existentzialek egunkarietan. “Ez du bost hankarik katuak, beraz, bila dezagun fite konponbidea” erantzun zieten politikari pragmatikoek. “Noren katuaz ari dira?” atera zen San Pedroko leihora Aita Saindua, *ad aeternum* luzatzeko proportzioa hartu zuen konfliktoaren erdian.

MUSU-TRUK. Eztabaida burutsuen ondoren, akordio batera heldu ziren herriko jaun txit preziatu denak: bankariak, gobernariak, gotzainak, petrolio-ustiatzaileak, burtsako korredoreak eta bonba-fabrikatzaileak.



INIGO AZKONA

« ‘Funtzionarioek dute errua’.


Halaxe idatzi zuten pergamino

batean. Alegia, irakasleak,

postariak, lorazainak eta

anbulantzia-gidariak

zirela krisiaren errudunak »



irudia:

Antton Olariaga

“Funtzionarioek dute errua”. Halaxe idatzi zuten pergamino batean. Alegia, irakasleak, postariak, lorazainak eta anbulantzia-gidariak zirela krisiaren errudunak. Jaitsi zieten horiei soldata, lehendabizi. Oporrak kendu, ondoren. Azkenera, musu-truk lan egitera kondenatu zituzten denak, komunitatearen hobe beharrez.

Gorriak jo zuen irakaslea, goseak postaria, agorrek lorazaina, sukarrak anbulantzia-gidaria. Banan-banan, desagertzen hasi ziren herri-langileak. Hil zen, bada, hil, txakurra; baina, berehala bukatu behar zuen amorruak ez zeukan amaierarik.

“Nork du errua?”, entzun zen berriro bilera-lekuetako lau bazterretako whisky garestiko botilen artean, ardo beltz onduarekin bazkaltzen ohitutako gurien ahoetan, umeak eskolara auto ezinago garestietan eramaten zituzten emakume begi-urdirin eztabaidetan.

“Iturgin, elektrikari, okin, farmazia-laguntzaile eta zahato-josle... horiena da errua”, esan zuten bankari, enpresari eta gobernuburuek.

Autonomo horiek guztiak ere kondenatu zituzten: zerga altuak ordaintzera lehendabizi, musu-truk lan egitera ondoren... Gauza bertsua egin zuten dendari, siderurgia-langile, nekazari, arrantzaile eta meatzariekin... denak desagertu arte.

Berriz bildu ziren Hogeita Zazpi Gobernariak. Oraingoan Aita Sainduarekin. Baita Babilonia eta Heliopoliseko orakuluen apaiz, igarle, sibila edota pitonisekin bildu ere. Galdetu zion, serio, Armagheko artzapezpikuak presidenteari: “Nor jarri behar duzu orain lanean fabriketan eta tailerretan?”.

Arrapostu hark, serioago: “Afrika, Asia, Amerika eta Ozeaniako azal-kolore guztietako esklaboak hor daude. Badugu sarea non bota. Bada, ez du hondoa joko berehala gure pagotxak! Alegia, Kapitalismoak!”. ■

BERTSO BERRIAK

Udako jaien aurrekontuari jarriak

Xabier Paga



INIGO AZKONA

I

*Berriki guregana heldu da
azken lege europarra:
tamalez gerrikoa gehiago
gogor estutu beharra.
Gastatzen dena jaisteko, uda
bere ez da sasoi txarra...
Akaso Erreala izango da
aurten igo den bakarra.*

II

*Urtero San Fermin izaten da
jaien lehen zita udan,
oraindik sos asko xahutzen da
euskar zezenaren modan.
Hurrena korrikalari denek
pozik egingo dute lan
goizero "Pobre de mí" kantatzen,
baina INEMeko kolan.*

III

*Ondoren Gasteiz beteko zaigu
festa, irriz, Zeledonez,
Florida, Zapa eta Kutxiko
zenbait "vaskit@" dotorez.
Kalera atera daitezela
euren betiko umorez,
parrandan baina kamisetekin,
obiko blusak jantzi orde.*

IV

*Europar legetik at gelditzen
aurten jai du Donostiak
han ere murriztu behar dira
lehenik ohiko izozkiak.
Bestalde, atera ez daitezen
beti hain su garestiak,
gauero ETBk eman bitza
berriazko guztiak!*


V

*Ai ama! Marijaia gaixoa
laster jarriko da triste,
nolabait Bilbo libratzen denik
arren ez dezala uste.
Udalak aitzakia jarrita
jada ez dena albiste,
Bilboko konpartsa denon txosnak
di-da kenduko dituzte.*

VI

*Azkenik sorta hau jarri nahi dut
lege etsenplu neurrira
kolpean pixkatxo bat murriztuz
nire silaben partida,
pasatuz zortziko nagusitik
soilik zortziko txikira;
bederen hala letra etzanak
erruz aurreztuko dira.*

OHARRA: Lehen doinuarekin dena irakurri ondoren, irakurri bigarren doinuarekin hizki arruntak bakarrik, *etzanak* ez.



Bidali zure sortak **bertsoak@argia.com** helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

DOINUA: 1.-"Norteko ferrokarrila", 2.-"Pasaiako plazatik"

Literatura

José Saramago

Txiripa hura

Lisboako setioaren historia aurkeztera etorri zen Euskal Herrira José Saramago, Jon Alonsoren eskutik. Idazlea hil berritan, euskarara ekarri zuen itzultzaileak aurkezpen haren aurreko eta osteko trama kontatu digu artikulu honetan.

JON ALONSO

JOSÉ SARAMAGO *Lisboako setioaren historia* Bilbora aurkeztera etortzea kasualitate askoren azken emaitza izan zen. Jende askok lagundu zuen, alde edo molde, jende asko ahalegindu zen, kasualitate kateatze hartan. Jende asko eta oso ezberdina: lehenik, Bilboko kontsulatuko Portugaleko kontsula Pedro Antunes, esaterako; Fran Lasuen, Edorta Jimenez. Orduan EIZIEko lehendakaria zen Lurdes Auzmendi, erakunde bereko idazkaria Arantzazu Royo. Nik neuk ere bai, Pilar, Teresa eta Chema del Río zirela tarteko, Vidal Hurtado adiskideari esker ezagutu nituenak urtebete lehenago.

Kasualitate zoragarri askoren kateatze horri esker, José Saramago itzulpena aurkeztera Bilbora etorriko zela baieztatu zen. Hura gure poza, eta gure urduritasuna! Dena prest edukitzeko gora eta behera ari ginelarik, hila-bete eskas falta zela, bat-batean EIZIEtik albiste txarra: ez, Saramago ez zen etorriko urrian *Lisboako setioaren historia* aurkeztera, uste genuen bezala; ez, esku beltz eta ezezagun bat tartekatu zen –“ezezagun”, esateko modu bat da–, eta esku beltz haren azpijokorearen ondorioz, gure ahaleginak pikutara zihozazen; azaroan etorriko zen, nonbait, urte har-



“Zordun natzaio, inondik ere. Uste dut, gainera, anekdotak aski ongi ilustratzen duela Saramagoren handitasunaren alderdi bat, jende arrunta eta apala bazter ez uzteko jaidura hau, alegia”.

tako Euskadi Sariaren irabazleari saria ematera. Argazki izugarri ederra amesten bide zuen esku beltzak: lehendakaria-sariduna-Saramago hirutasun saindua uztarturik, alberdarian. Pilar del Río fax bat idatzi nion. Hauxe erantzun zidan: “*Obviamente, si se hubiera podido compatibilizar agendas y horarios, no hubiera pasado nada porque José asistiera a la entrega de premios, pero como hay que optar, a José le lleva a Bilbao un acto cultural, como es la presentación de un libro, y con quienes debe estar es con su traductor, con su editor y con la asociación que promueve las traducciones al euskera*”. Ez nuen jakin ordura arte, eta ez

dut jakin harrezkero ere, literaturaren mundu aski nazkagarri honetan, zer den hogeitamaika eskutik edukitzea.

Zordun natzaio, inondik ere. Uste dut, gainera, anekdotak aski ongi ilustratzen duela Saramagoren handitasunaren alderdi bat, jende arrunta eta apala bazter ez uzteko jaidura hau, alegia.

Oztopo hori gaingiduta, ondoren beste oztopo bat gainditu behar izan genuen: protokoloa. Bilboko alkatearekin nola moldatu, alegia. Bilboko alkatea Sondikara etorriko zen, harrera egitera. Konforme. Ez, ez zen etorriko. Mahaian eseriko zen, Bidebarrietan, Saramagoren ondoan. Guregatik, ederto. Baina ez, ez zen mahaian eseriko, udaletxean bertan hartuko zuen. Har zezala, ba. Arazoa zen alkatea iritzi aldaketan zen bakoitzean programa guztia ere aldatu behar zela. Azkenean auresku protokolario batekin, erabaki zen kontua, Bidebarrietako atean. Ez dut akorduan alkateak biboteak niregana itzuli eta bostekoa emateko imintziorik egin zuenik. 91n, aldiz, Bilboko beste alkate batek bostekoa eman, Aresti sariaren emanaldia kari, eta ez zidan eskua askatu nahi. Luzetsita, nire tokira itzultzeko keinua egin nuenean, besteak, bibotearen atzetik zetorren ahots batekin, eta itxura irribarretsuar eutsiz, hala ere: “*la foto, la foto...*”.

Alkateen biboteen semiotikarekiko ulertezintasun honek definitzen nau, gaitu, norberaren bizitzaren metafora izateraino. Bostekoa eman bakarrik ez, Saramagok besarkatu ere egin ninduen, ordea. Sondikatik Bilbora-koa taxi bereko atzeko aldean egin genuen. Hor gindoazen, Enekuritik gora, isilik. Nik ez nuen deus esateko asmorik, arrazoi askoren-egatik, errespetua ez zelarik txikiena izango. Bi edo hiru minutu pasatuko ziren, eta Sarama-

“Inor ez zen egongo erabat konforme Saramagoren iritziekin eta jarrera-hartzeekin. Baina inork ezin dio leporatu aurpegia ez ematea edo ezkutatzea. Eta inork ezin du beti asmatu mundua, bere zabalean, hartzen denean jokalekutzat”

gok, haur bihurriaren irriñoaz, “eseak” arrastaka ahoskatuz eta bokalak pasta bereko soinu bihurtzeko zeukan manera horrekin: “*¿Ya sabes que tienes a Pilar del Río muy enfadada?*”. Barre egin nuen, egin genuen. Ongi, oso ongi joan ziren Bilbon egin zituen bost orduak.

Gero, beste bitan ikusi nuen. Azkena Mexikoko Guadalajarán, 2004an, *Centro de Estudios de Literatura Latinoamericana Julio*

Cortázar izeneko etxearen inaugurazioan. Beste adiskide handi bat eta biok han agertu ginen, iritsi ginen noizbait Saramagorengana. Pilar del Río egin zuen bitartekaritza, beti bezala, berezkotasun osoz, jendea etxeko sentiarazteko modu natural horretaz, aurrean dagoena gu bezalako inorez izan edo presidente bat izan. Belisario Betancur eta haren emaztearekin zeuden. Musu pare bana eman genion Belisarioren emazteari, lagunak eta biok. Uste dut ordurako aski barre egingo zuela Saramagok gutxien espero zuen tokian agertzen zitzaion euskal itzultzaile xelebre eta temoso harekin.

Inor ez zen egongo erabat konforme Saramagoren iritziekin eta jarrera-hartzeekin. Baina inork ezin dio leporatu aurpegia ez ematea edo ezkutatzea. Eta inork ezin du beti asmatu mundua, bere zabalean, hartzen denean jokalekutzat. Beste garai bateko idazle-paradigmaren azken adibidea izan da, idazle modernoarena, hala esan nahi bada. Paradigma horren arabera, idazlea boterearekin kritikoa da, baina sistemaren mugak gaingitu gabe. Itxurazko edo egiazko kontraesan hori nola gaingitu edo gaingiduzen saiatu diren batzuek eta besteak, dozenaka adibide dago.

Bestalde, hor dago bere obra, nahi duenaren esku, noski. Nik zerbait azpimarratu beharko banu gaur, gizon oso dotorea izan dela izango litzateke. ■

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

JUAN ZELAIA
X. Saiakera saria

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

Saria: 9.000 €

Lanak bidaltzeko: Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltxate. G kalea-31013 IRUÑEA.

Irailaren 30a arte.

Tel.: 948 326535 / soltxate@pamiela.com / Arauak: www.pamiela.com



Zinema - Literatura

Maria Luisa Elio nola bidaiatu Iruñetik Macondora

Idazlea eta zinema gidoilaria, Mexikora erbesteratutako errepublikar iruindarren alaba, iaz zendu zen Maria Luisa Elio. Haren izena betiko geratu da lotuta XX. mendeko literatura hegoamerikarrari, Gabriel García Márquezekin izandako laguntasuna medio.

GORKA BEREZIARTUA

“HANDIK URTE ASKORA, fusilamendu pelotoiaren aurrean, Aureliano Buendia koronelak...” baina itxoin, itxoin, Gabriel García Márquezen *Cien años de soledad*eko aurreko orrian ere zer bait jartzen du-eta. “*Para Jomí García Ascot y María Luisa Elio*”. Gaur, hilda daude biak: García Ascot 1986an joan zen; Elio 2009an; Mexikon eman zuten azken arnasa. Baina aurrenekoa, munduak zauritu berri-tako jaioberriaren garrasia, Iruñean egin zuen Maria Luisa Eliok, Emilio Arrieta kalean, 1926ko abuztuan.

Haren omenez eskaini zuten joan den ekainaren 17an *En el balcón vacío* filma Iruñean, IPESEk antolatutako Zinea eta Emakumea erakustaldian. García Ascotek zuzendutako pelikula da, eta gidoia Elioren testuetan oinarrituta dago. Batzuen ustez Mexikon egindako lehen film esperimentala izan zen eta, agian horregatik, inoiz ez zen pasa zinema-areto komertzialetatik, hainbat jaialditan sariak jaso arren.

Ez zuen lagunduko, Espainiako aretoetan proiektatzeaz ari bagara behintzat, filmaren tematikak. *En el balcón vacío*ok Gabrielaren istorioa kontatzen du: leihotik begira dagoe-la, errepublikar bat nola atxilotzen duten ikusten duen haurra; hori ikusirik Gerra Zibilaren zentzua ulertzen duen haurra; familiarekin batera, Iruñetik alde egin behar duen haurra; eta handik urte askora, “erbeste” hitzaren atzizki guztiak ikasita, sorterrira itzultzen den haurra, ordurako heldu.

Horrelakoxea izan zen, gutxi gorabehera, Maria Luisa Elioren bizitza ere: haren aita,



Lehen argazkian, Elio gaztetan. Bigarrenean, García Ascot, *En el balcón vacío*-ren filmaketan.

Luis Elio, abokatu zen ogibidez, familia aristokratikokoa, baina errepublikarra. Eta Maria Luisak hamar urte ere ez zituenean, aitarren bila etorri ziren etxera. Kuarteretik bizirik atera ordea, eta hiru urtez egon zen gordeta, alkandora urdinen izua ezin eraman zuten lagun karlista batzuen etxean. Ia gerra amaituta pasa zen bestaldera; Parisen elkartu zen familiarekin ostera. Eta handik Mexikora. 1970ean itzuliko zen Elio Iruñera, aita hil ondoren. *Tiempo de llorar* liburuan jaso zuen itzulera hura. Aurreneko esaldiak zera dio: “Orain konturatzan naiz itzultzea, joatea dela”.

García Márquez 1960ko hamarkadan ezagutu zuen, Mexikon. Elio eta orduan bere senarra zen García Ascot, hiriburuko zirkulu intelektualetan baziren nor: Juan Rulfo, Octavio Paz, Elena Poniatowska... biko-tearen ezagunak ziren. Eta idazle kolonbiarrak beraiei esker ezagutu zituen. Ez da anekdota hutsa, kontuan izanda Rulforen literaturak Márquezen estiloan gerora zer eragin izango zuen.

Esker ona adierazteko-edo, Elio eta García Ascot izan ziren aurrenekoak *Cien años de soledad*en berri izaten. Gabok hiru edo lau ordu behar izan zituen nobela osoa Eliori kontatzeko eta bukatzean, zer iruditu zitzaion galdetuta, Eliok esan omen zuen: “Hori idazten baduzu erokeria izango da; erokeria zoragarria”. Erokeria zoragarri horren aurreneko orrialdean geratu da Elioren izena betiko. ■

Liburuak

KRITIKA

Zureak egin du. Iñaki Frierak.
Susa. 137 orrialde. 16 euro.

Helduen literatura
Gema Lasarte

Gureak egin du

IRUDITZEN ZAIT, genero indarkeriaren inguruan sortzen ari den lurralde arriskutsua, edo are, engainosoa bilakatzen ari zaigula. Bortizkeria da nagusi eta mugarrak morboan oinarrituta daude. Genero indarkeria erabat mediatizatua dago egun: irakurle nahiz ikusle mediatikook morbo dosia eskatzen dugu eta ondorioz horretan adituak diren marketin enpresek eman egiten digute. Diskurtso guztiak kontsumitzailearen neurrira eginak daude, izan ere, kontsumitzailea bera baita diskurtso-gai eta saltzen zaigun objektuaren eredu.

Halere, beti pentsatu nahi izan dut zinema edota literatura, sistema merkantilista horretatik zertxorenbat urrunduta zebiltzala, baina askotan sorpresa izugarriak hartzen ditut, genero indarkeria eta morboa azken aldian uztarri berean lotuak ikusi baititut Stieg Larssonen nobeletan edo *El secreto de tus ojos* filmean. Balirudike genero indarkeria emakume bat brutalki akabatzea dela. Baina datu batzuk jartzearen, Espainian, 2005ean, tratatu txarren 82.750 salaketa jaso ziren; eta 2007an, genero indarkeriaren ondorioz, hildako 57 emakume kontatu ziren. Zer pentsatua ematen duten datuak, bien artean tarte galanta baitago. Argi dago feminizidioa (emakumeen kontrako terrorismoa) eman arte, indarkeria sinboliko izugarria eraikitzen eta legitimatzen dela gure gizartean. Eta nago, literaturan nahiz zineman, indarkeria sinboliko hori salatzen baino gehiago morboa sortzen dihardugula.

Bosh eta Ferrerek (2002), horrela definitu zuten indarkeria sinbolikoa: "Indarkeria tipo hau, boterea eskuetan duten taldeek (gizonak, zuriak, aberatsak...) beste talde batzuk (emakumeak, beltzak, pobreak...) menpean hartzeko diseinatzen dituzten estrategietan oinarritzen da. Martxan jartzen dituzten modalitate kulturalak, naturalizat edota normalizat hartzean gertatzen da indarkeria sinbolikoa. Azkenean, indarkeria sinbolikoak zedarritzen eta legitimatzen du feminizidioa. Beste modu batera esanda, gizartean giza-ezberdintasunak modu naturalean ikustera ohitzen gaituen indarkeriaz ari gara. Indarkeria tipo hau da, hain zuzen ere, erresistentzia gutxiena eskaintzen duena".

Faltan botatzen dut indarkeria tipo hori gure literaturan, eta gehitxo irizten diot Lertxundik (2009) nahiz Frierak (2010) eskaini digutenari. Oso ondo daude, baina izenburuak begiratzea besterik ez dago sentsazionalismo puntu bat aurkitzeko. Aitziber Etxeberrriak (2003; 2007), Dorleta Urretabizkaia (2006), Uxue Alberdik (2009), Eider Rodriguezek (2008), Laura Mintegik (1988), Xabier Montoiak (2008), edota Lertxundik berak (1985), modu askoz ere isilagoan eta inplizituagoan iradokitako indarkeria sinbolikoari estimazio handiagoa egiten diot. Juarez ez ezik, genero indarkeriaren lurralde, arriskutsua da oso literaturan, zineman nahiz bizitzan, eta ondo tratatzen ez badakigu Gureak egin du. ■



Entzumena ez da Errauskine

"Denbora luzez, entzumena lau trebetasun nagusien, hots, mintzamenaren, entzumena-
ren, irakurmenaren eta idazmenaren Erraus-
kineren antzera tratatu izan da" esanez hasten da John Flowerdew eta Lindsay Millerren *Entzumena bigarren hizkuntzan* liburua. Egileen ustez, komunikazio-gaitasunaren funtsezko osagaia da entzumena ordea, eta beste trebe-


tasunen tratamendu bera merezi du, batez ere, bizi dugun globalizazio tes-
tu-inguruan, ingelesak betetzen duen rola kon-
tuan izanda. Horregatik, lan honekin entzutezko arloko teoria egune-
ratua eskaini gura dute, egileen eredu pedagogikoarekin eta hainbat praktika-
ren kasu-azterkete-
kin konbinatuta. HABEk eman du argitara liburua. ■



Entzumena...
J. Flowerdew /
L. Miller
HABE.
309 orrialde. 7 euro.

Zuazo euskalkiei buruz, gaztelaniaz


El euskera y sus dialectos du izenburua Koldo Zuazok Alberdania argitaletxearen eskutik publikatu duen saiakerak. Ezagunak dira EHUKo Dialektologia katedradunak euskalkien alorrean egindako lanak. Bai, behinik behin, euskal irakurleen artean. Liburu honi esker erdal irakurleari ere ezagunago egingo zaizkio Zuazoren tesiak. Besteak beste, Zuazok uste du Erdi Aroan sortu zirela euskalkiak eta ez direla erromatarrak Iberiar penintsulara iritsi baino lehenagokoak. Gainera, liburuan esaten duenez, fragmentazio dialektalaren une garrantzitsuenak XI. eta XII. mendeetan gertatu zen, agian Iruñeko Erresuman jazotako hausturaren eraginez. ■



El euskera y sus dialectos.
Koldo Zuazo.
Alberdania.
211 orrialde.
21 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Piztu herria.
Emon.
Babel Musik.
Iraupena: 32'16".
8 euro.

Jaietako plazak berritu beharra

BERGARAKO HERRIA operazio gune daukan zortzikote honek garapen handia egin du azken urteotan. Euskal folk eta rocketik abiatuta, aspaldian ska eta bestelako doinu beroetara hurbildu dira haizezko instrumentuek protagonismoa hartuta. Ander Barriusorekin Eibarren grabatu eta Katarainen nahastutako emaitza dotorea da; Emon jaietarako talde aproposa bilakatu du, gaztea eta bizi-bizia. Jai giroa, aldarrikapena, dantza eta melodia borobilak

batzen ditu. Badira ska eta rocketik edaten duten piezak, Toots & The Maytals euskaratuta, raggamufina, folka eta popa batera aurki daitekeen bidegurutzea, eta trikitia, Balkanetako oihartzuna eta dub-a batera urtuta duen ontzia ere. Are gehiago, Bergarako jaietarako idatzitako *Piztu herria* kantari buelta erdia eman diote. Plazak aldatzen ari dira, ezta?

www.emon.tk

Emon

«Bide azkarrena ez da onena. Patxadaz bizitzen ikasi beharko genuke»

Zer daukazu emoteko? Eta zer eskatzen duzue trukean?

Kontzertuetara datorrenari zerbait berezia eskaini nahi diogu eta horretarako agertoki gainean dena ematen dugu. Kontzertu bakoitzera ondo pasatzera goaz. Trukean nahi duguna jendearen erantzuna da eta orain artekoa oso positiboa izan da. Eta gure asmoa da ahalik eta jende gehienarengana helitzea.

Euskal folk eta rock doinuetatik ska musikara hurbildu zarete gehiago. Zer dela-eta?

Uneoro eboluzionatzen ibili gara eta haizezko instrumentuen sarrearak zerikusi handia izan du aldaketan. Gainera, taldean zortzi pertsona izanda, bakoitzaren ekarpenak gehitu eta musika aldaketa ahalbideratu dute.

Erraza da talde moduan "zuen bidea" egitea?



Bakoitzak bere bidea egiteko mezua zabaldu nahi dugu. Era berean taldean ere gure bidea jorratu nahi dugu. Egiten duzun horretan sinietea da gakoa, ez baduzu zure proiektuan sinisten nekez egingo duzu aurrera.

Lerro zuzena ez da beti onena, ezta?

Azkarrena izango da, baina ez onena. Ez gaude ados bizitzaren filosofia horrekin, patxadaz bizitzen ikasi beharko genuke. Dena

azkar egin nahi dugu eta kontuan izan behar da naturari errespetua zor zaiola. Gastu ekonomiko ikaragarria eta zentzugabeko naturaren suntsiketa ekarriko duen makroproiektua daukagu aurrean.

Non aurkitzen zarete eroso-ago, gaztetxean edo plazan?

Ez daukagu leku gustukoa-gorik, bietan aritzen gara gustura. Askotan gutxien

espero duzun lekuan eta momentuan izaten da kontzerturik onena.

Nolakoa izan da grabazio prozesua?

Bi hitzetan esatearren, ilusioz betetako garaia izan da. Hamar egunean grabatu genuen guztia eta asko disfrutatu dugu prozesuan. Ander Barriusorekin lan egitea oso atsegina izan da eta bera prozesuan erabat murgilduta egon da. Eta Katarainen egindako nahasketekin ere oso gustura gelditu gara. ■

Ezpalak

JON TORNER

Mendebala jaialdia Sopuertan, blues emanaldiak Tolosan



UZTAILAREN 2AN ETA 3AN egingo da Mendebala jaialdia Sopuertan (Bizkaia). Zazpi kontzertu izango dira, guztiak doakoak. Adarrots, Luar Na Lubre, Bizardunak, Xabi Aburruzaga, Tejedor neba-arrebek, Sokaidek eta Fala Non Caduca taldeek joko dute. Kanpatzeko tokia ere egongo da. Egun berdinetan Tolosandblues blues

jaialdia izango da Tolosan (Gipuzkoa). Lou Marini New Yorkeko saxofoi-jotzailea, Red House taldea, The Romantics, Mc Jeara's Band, Sherman Robertson eta Blues Connection arituko dira.

Dantza tradizionalako irakasleak trebatzeko curriculum

GIPUZKOAKO DANTZARI TRADIZIONALEK eta dantza tradizionalako irakasleak dituzten beharrak eta euren egoera aztertu ostean, oinarritzko curriculum bat osatu dute. Horren bitartez, dantzako ikasketak modu arautuan jaso ahalko lirakeke. Dantzan Ikasi formakuntza egitasmoak osatu du curriculumaren zirriborroa. Informazio gehiago: www.dantzan.com/blogak/dantzanikasi.

Aitor Zuberogoiak jaso du Miguel Unamuno Saiakera saria, *Surfizeneko* obrarekin. Saritutako lanean bizitzaren azelerazioari buruzko kontakizuna egin du egileak. Horretarako, esperientzia pertsonalean oinarritu da. Hamahiru lan aurkeztu dira euskaraz, eta 47 gaztelaniaz.

Martin Ugalde (Andoain, 1921 - Hondarribia, 2004) kazetari, idazle eta politikariak desio zuen bezala, andoaindarren esku utzi ditu Ugalde familiak berak idatzitako lanak eta agiriak. Milaka liburu, agiri eta eskutitzek osatzen dute bilduma, beste hainbat objektuekin (diplomak, marrazkiak...) batera. Andoaingo seme kuttuna da Ugalde.

● **Mikel Bizar Idi bihotz taldeko kideak Bizkaie! agerkari digitalean:** «Nik uste dot Euskal Herrian ez dagoala estilorik. Euskal Herrian, barbarako, Gatibu, Ken Zazpi edo Betagarrigaz batera jotzen dozu eta lehenengo lerroetako jentea ez da mobiduten eta hor ska, heavya eta rocka edo popa dagoz, esan gura dot oinarrian euskal musikea dala. Hemen, gurean jentek edozer entzuten dau, sormen handia dago eta estilo eta joera askotako taldeak dagoz. (...) Diskoak ez dira saltzen baina nork ez dau musikea entzuten? Mundu mailako artistantzako, akaso, kaltegarria izan daiteke deskargen kontua musikatik bizi diralako baina gu lako taldeontzako kalte baino mesede egin deuskula pentsetan dot. Zure kantuak deskargeteak esan gura dau jente pilo batek ezagutu eta entzungo zaituala. Guk salmentetatik ez dogu diru askorik ikusi eta, beraz, zenbat eta deskarga gehiago, hobea».

IZEN EMATEAK: www.iratikotourra.com



2. Euskal Herriko zikloturista itzulia

MAULE (Zuberoa) Euskal Herria

2010
Uztaila
Julio
Juillet


3-4

IRATIKO TOURRA
- martxa zikloturista -

Babesleak

berria hitza

Antolatzaileak



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

UNAI BREA

Zer ote da 'psinoma' delako hori?

El cebo. José Carlos Somoza.
Random House Mondadori (2010).

AZKEN URTEOTAN dezente zaletu naiz José Carlos Somoza (Habana, Kuba, 1959) idazle espainiarrarekin. Egia da best seller sortzaile trebea dela Somoza, baina ez, inondik inora, literatura-ren historian nabarmenduko den idazlea. Ez da Saramago, oraintxe bururatu zaidan bat aipatzearren. Baina ezin zaio ukatu, eta batik bat horregatik erakartzen nau, eleberrri bakoitzean irudimen ariketa ikaragarria egiten duela. Somoza originala izaten saiatzen da, eta ia beti lortzen du.

Dozena inguru nobela dauka argitaratuta, eta horietatik hiru-tan, Somozak etorkizun gutxi gorabehera hurbil batean kokatu du narrazioa. Kasu horietan, originaltasuna testuingurutik dator. Ausartuko naiz esatera testuingurua bera bihurtzen dela pertsonaia nagusi. Oraindik orain labetik atera duen *El Cebo* (Amua) thriller klasikoa da, baina oso marko interesgarrian gertatzen da. Marko hori osatzeko, zer pentsatu franko ematen duen ideia bat garatu du madrildar idazleak. Tira, bat ez, bi, baina horietako batean huts egin du nire iritziz.

Teknologia hainbeste garatu da, polizia dagoeneko ez diola balio gaizkileak harrapatzeko. Edonork lor dezake, merke antzean, ADN arrastoak edo hatz-markak edo beste edozein aztarna ezabatzeko erabil daitekeen gailuren bat. Hor dago hutsa: sinesgaitza da teknologia hori garatuta ere, gobernuek herritarren esku hain erraz utziko luketenik. Kontua da Somozak lehen premisa hori behar duela bigarrena justifikatzeko.

Teknologia ezin baliaturik, 'amuak' dira krimenari aurre egiteko polizia dituen arma ia bakarrak. Amuak ondo entrenatutako pertsonak dira, jantzi, keinu eta jarrera jakinen bitartez gaizkileak erakar ditzaketenak. Gakoa psinoma da, XXI. mendeko aurkikuntza zientifikorik handienetakoa eta, hori bai, munduko agintariek iritzi publikoari ezkutatu diotena. Psinoma genomaren baliokidea da gure psikean. Somozak proposatzen duen eszenatokian, zientzialariak (batzuk) konturatu egin dira gutako bakoitzaren hondoan dagoena, gure jokabide guztien motorra, desioa dela, eta desio hori matematikoki kuantifikatu daitekeela. Nork bere psinoma dauka, eta estimulu desberdinen aurrean erreakzionatzen du. Somozak planteatzen duena, eta antzeko ideiak irakur daitezke benetako zientziaren esparruan, gure ekintzak ezinbestekoak direla da, ez dugula gure jokabidea askatasunez aukeratzetik, begien kolorea aukeratzetik ez dugun bezala. Noraino gara egiten dugunaren erantzule? Nola definitu erantzukizun kontzeptua bera? Zuzenbidearen esparruko eztabaida interesgarria da, eta ez du, noski, José Carlos Somozak abiarazi, baina oso ekarpen entretenigarria egin dio. ■



José Carlos Somoza.

ANDRZEJ BARABASZ-CC BY SA



AQUARIUM



Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1
20003 Donostia (Gipuzkoa)

Tel: 943 44 00 99

aquariumss@aquariumss.com
www.aquariumss.com



Ihesi

ITZ IAR MADINA

Argazkiak: Gaizka Iroz

Euskal Herria ezagutuz:
Kanbo (Lapurdi)



1728koa da abiapuntua. Ana-Maria Neuburgokoa Espainiako erregearen alargunak lehen egonaldia egin zuen Kanboko bainuetxean. Kanboko ura eta herriaren xarma Frantziako goi mailako jendarteari ezagutaraziko zizkion. Hots, Kanbok medaila jantz dezake: Biarritz baino mendea lehenago “sozietate oneko” jendeen erakarle izan zen. Gaur, biriketako gaitzen osatzeko gune sonatua da. Gainera, Arnagakoa Iparraldeko bigarren museorik bisitatuen da.

Bi menderen lekuko

BERE OROGRAFIA DELA ETA, Kanbo hiru partetan zatika daitekeen herria da. Erdigunean eliza, Terrazetako karrika eta baratze publikorainoko ibilbidea ditu. Eliza XVII. mendekoa da eta inguruan ditu hainbat euskal hilarri borobil. Abbé Pierre ikustokitik Ursuia mendia agertzen da eta Errobi ibaia beheko aldean. Malda horretan Paleolitikoko aztarnak atzeman ziren 1917an. Terrazetako karrikak platanondo azpiko egonleku itzaltsuak ditu. Terrazadun hotelak orain mendea ireki ziren, sendatzeko gogoz etorritako kanpotiarren inguruan zabaldu zen aktibitate ekonomikoaren ondorioz. Xerri karrikak berriaz, Kanbo herrikoieraino garamatza Trinketaren azpitik, Lapurdiko etxe doto-reak, erromatar zubia, latsarri freskoa eta... malda bidaide. 80 eskailerek Kanbo Behererainoko

jaustea darakuste. Baina Frantses Iraultzaren denboran *La Montagne* deitu bazuten ere, Kanbok ez du 70 metro baizik, itsasoaren mailatik gora. Kanbo Behereko bestaldean, Baiona eta Donibane Garazi arteko tren geltokia dago. Azkenik, Kanboko hirugarren eremua herriko baratzeetatik haragokoa da, Hazparneko bidean. XII. mendez geroz famatuak diren eta gaurko egunean Kanbora milaka jende dakartzaten bainuetxeak lokarturik bezala daude, Errobi ibaiaren gaineko aldean eta Ursuia mendiaren altzoan. Hango bazterrak denborak iragan nahi ez balu bezala daude. Herritik sendaetxera doan bideko arbola erraldoiek hiru mende dituzte. Kanboko seme Jean Fagalde, Napoleon III.aren xokoleta hornitzaile ofizialak manatu eta ordaindu landaketa izan bide zen. Benetan

merezi du bainuetxeko parke erraldoian promenatzea. Landaretzaren joritasunari, palmondoen eta lekuko arbolen nahasteari, baita arkitekturaren berezitasunari ere, eklektikotasuna darie. Euskal Herrikoa bezain Tim Burtonen filmeko paisaian gaudela dirudike.

Kanboko urberoak

“Zuhaitz ederrez apainduriko bide politak malda gozotik gidatzen zaitu ur onen sendaetxeraino, hau baitago Errobi ibaiaren ertzean kokatua, herri barnetik kilometro bakarrean. Itxura du xumea, baina bere uren eraginkortasuna arrazoinarekin da goraipatua”. Honela mintzo zen Justin Lallieren Pirinioetako bainuetxeetako gida, 1858an. Laudorioari laudorioak gehitzen zizkiola: “Itzala, isiltasuna eta gune ikusgarriez gozatu nahi izatera,





XII. mendetik dira ezagunak Kanboko bainuetxeak, urtero milaka bisitari erakartzen duen amua.

zoazte Kanbora. Han, ez Eaux-Bonnes-etako ez Cauterets-eko luxuaren arrastorik, ezta lekuz kanpoko jantzirik. Norbera bere gisara bizi da, huros, egiazki baserrian gira”. Ana-Maria Neuburgokoa Espainiako errege Karlos II.aren alargunak eta haren ondotik jin ziren guztiek ez zuten Erdi Arotik ospetsua zen omena baizik segitu. Izan ere, Kanboko urak sufretsua dira, eta burdinez nola magnesioz aberats. Hauek biriketako eritasunak eta erreumatismoak sendatzen bezainbat minak eztatzen laguntzen dute.

XX. mendearen hastapenean, Jacques Grancher medikuak akuitua eman zion Kanbori. Bularreko medikuntzan zuen puntako ezagutzari fidaturik, haren aholkua jarraitu zuten hainbat paristarrek eta Lapurdiko bainu herrian atsedea

hartzera etorri ziren. Honela, Edmond Rostand idazlea, pleursiak jota. Rostandek Kanbon idatziko zuen Chantecler antzerkia. Eta aurten preseski, herriak ospatzen du obra hori taularatua izan zeneko mendeurrena.

Grancherrek izandako ideiarekin garapenaren poderioz, osagarria berreskuratzeko gunea da gaurko Kanbo. “Ongizatea eta osasunerako duen bokazioak garapen ekonomiko esanguratsua segurtatu dio bi mende Euskal Herriko laborari herrixka bat

baino ez zenari”. Horixe da Chaîne Thermale du Soleil Kanboko ur sufretsuen esplotazioa bereganatu duen bainuetxe katearen ikusmoldea. Kanbokoak 12.000 bezero errezibitzen ditu, urtero. Honen ondoren, Kanbok bihotz ala biriken





Ezkerreko argazkian, Errobi ibaia eta Ursuia mendia, Abbé Pierre ikustokitik. Erdikoan, Arnaga, Edmond Rostandek egindako etxea, gaur erakustoki bihurtua.

eritasunetan berezituriko hamazazpi sendaetxe ditu. Hots, osasunaren saila ekonomikoki baitezpadakoa zaio, mila lanpostu zuzen izanez. Hori dela eta, ez zaitezte harri karrikaz karrika zabiltzatela bat baino gehiago ikusten baduzue orgatto bati tiraka. Jende horiek maleta utzirik daukate hotelean ala erietxean. Tramankulu txirringadunak oxigeno botila daramakie.

Kanbo aintzatsua

“Etxetto alokatua, ongi zerbitzaturiko askariak, kulunkaulkia zurezko balkoiaren gainean...”, biziaren plazerei emanikako Léa, amodio minaren eztitzera etorri zen Kanbora, behin bazen, Frantziako “Urte Ero” haietan. Léa biziarazi zuen Colette idazleak Chéri bere eleberrian, bidenabar, zertzelaturik utziz Munduko Lehen Gerla aurreko Kanboko hiri erdiko giro mundanoa. Literaturaren historiografiak ez badio ere Colette Kanboko zer ostatutan egon zen –egon bazen behintzat– Terrazetako karrikako Saint Laurent Hotelaren balkoieria sotilari behatzea aski da hartantxe izan zitekeela pentsatzeko. Irudimena libre.

Zer ez zuten urte haietan Kanboko jendeek ikusiko? Professeur Grancher karrikako Rosa-Enia etxeak baduke zer kontu. 1898an estreinatu zuten Grancher senar-emazteak, Pariseko Operako kanta-

ria Lafargue andereñoa abeslari. Jacques Grancher Louis Pasteur-en laguntzaile izan zen. Tuberkulosiaren prebentzioan eta sendatzean aritu izan zen bizi osoan. Pneumoniak Kanbora bideratu zuen, Frantziako medikuntzan erreferentzia nagusietatik bihurturik zegoela. 1896az geroz herriko etxeko zinegotzi errepublikar erradikala izan zen. Gero, 1900 eta 1905 artean,

**Goi mailako paristar sozietatea
Kanbon bizitzera gelditzen hasi, eta
hark zituen “neo-basque” arkitektura
motako hainbat etxe eraikiarazi.
Ikusgarriena, dudarik gabe,
Edmond Rostand-en Arnaga
proiektu megalomanoa da.**

auzapez. Gaur egun, Kanboko erietxe batek haren izena darama. Eta Rosa-Eniako paretek zer erran behar lukete, ote? Bada, Grancher andere jatorriz kubatarrek elefanteak eduki zituela baratzean. Edukitzeaz gain, han ere hil zirela. Egia ala gezurra? Rosa-Eniak erantzuna.

Honela, goi mailako paristar sozietatea Kanbon bizitzera gelditzen hasi zen. Hark zituen “neo-basque” arkitektura motako hainbat etxe eraikiarazi. Ikusgarriena, dudarik gabe, Edmond Rostand-en Arnaga proiektu megalomanoa da,

gaur erakustoki bihurtua. Edmond Rostand Kanbon bizi izan zen 1906 eta 1918 artean. Pariseko literatura kritikarien ausikietatik ihes egiteko uharte baketsutzat pentsatu zuen Arnaga eta bere xedea lortu, Cyrano de Bergerac obraren arrakastak eman zizkion egile eskubideei esker. Arnaga eihera, urmaela, pergola, iturria, parkea eta Versailleskoei parezkatu ohi diren frantses baratzeekilako eremu zoragarria da. Baionako bidean, Hirukurutzeta base-riaren ondoko tontorrean erroturik dago. Begien bazka ditu Ursuia, Hartzamendi eta Mundarrain. Arnagako eraikinak hiru urte baino gehiago iraun zuen. Rostanden moldagaitza zela ikasi zuten arkitektotik harginetarraino, lan-kateko eragile guztiek. Planoak, paretak edertzeko tapizerien oihala ala

burdin forjatuen itxura behin eta berriz errefusatzeko zituen Frantses Akademiako kide eginak. Noizbait 40 geladun jauregia bukatu zuten eta honela Sarah Bernhardt, Anna de Noailles, Paul Faure eta garaiko antzerkilari, olerkari eta idazle gehiagok egonaldirik egin ahal izan zuten. Arnaga museoa, apiriletik urrira bitartean bisita daiteke. Urtero 60.000 jendeak hala egiten du. Ipar Euskal Herriko hirugarren lekurik bisitatuena da, Larrungo trenaren eta Biarritzeko Itsas Museoaren ondotik.



Pilotalekua eta ostatuak, Kanbo Beherea auzoan.

...eta Kanbo xumeagoa

Kanbora etorritako kanpotiar artistetan, xumetasuna lehenetsi zuten batzuek. Batek arkatza atera eta Aragoi, Andaluzian, Madrilan ala Marokon hasitako margolaritzako bere lana segitu zuen euskal herriarren artean eta ia haiekin bat eginez. Hori Pablo Tillac margolari, ilustratzaile eta grabatzailea izan zen. “Tillac, malgutasunaren eta indarraren dohaina daukazu. Natura kopiatzea aski zaizu arte-eder lana lortzeko”, esaten zion Ignazio Zuloaga eibartar maisuak. Ikatziriz, kolorezko margoz ala tinduz, Tillacek orduko jendarteari buruzko ehunka lanez osaturiko egiazko lan etnografikoa utzi zuen. Herriko bestak, merkatuak, ostatuko mahai baten ixkina berdin zituen lanerako pizgarri. Kanpoan zegoen beti, zer irudikatu zain. Hainbesteraino non, Anguleman jaioetako artista euskal-

duntzen hasi baitzen. “Aita mini gison chiminoa”, idatziko zuen bere obretatik batean eta izenpetuko: “Tillac-ak egina-1928”. Eta 37x15 zentimetroko bere irudiak xapela eskuinera eta zigarreta ezkerreara bihurturik dauzkan gizonttoa darakuskigu, irri abegikorra ezpainetan, aulkian jarria: “Aita mini gizon tximinoa”, kanboarra. Urte askotarako.

Horiek horrela, iduri luke Kanbok ez duela kanpotiarrez beste, lekuko jende ospetsurik. Hortik urrun, egia. Marie Argain Urkodoia aipa genezake, 1860ko hamarkadan Kanbon sortu bertsolaria. Piarres Lafittek zionez, “ez zen batere herabe gizonekin ere kobla-ka artzeko. Ardurenean polliki ari zen, andere bati zoakon neurria atxikiz. Baina hainbat gaixto, sobe- ra atakatzen bazuten: mihia txar- tzen zitzaion eta zonbait aldiz,


itsuski!”. Azkenik, nork ez du Joseph Apesteguy, “Txikito de Cambo” pilotaria ezagutzen? Kanboko hilerrian ehortzirik dagoen Frantziako txapeldunak fama ikaragarria lortu omen zuen Lehen Mundu Gerlako lubaketan. Diote- nez, alemanei xisteraz botatzen zizkien eskuko bonbak...

Kanboko zuen itzulian tximinia gorrixka badakusazue Abbé Pierre ikustokitik elizaren bestaldean zeruan gora, Kanboko txokolatea- ren industriari pentsa ezazue, bi mendez zinez pusanta izan zen. Eta karrika ixkina batean gitarra soinua aditzen baduzue, ez duda Mixel Labèguerie kantari eta politi- kari izanarena izan daitekeenik. Kanboar sutsuaren ondoan badai- teke Isaac Albeniz entzutea, piano jole. Ezen Kanbok argi uzten baitio ezagutu nahi duenari oihartzun an- tzen kurutzalekua badela. ■



ANDRA MARI
restaurant


Elexalde Auzoa, 22 • Galdakao, Bizkaia
Tel.: 94 456 00 05 • www.andra-mari.com



Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak



Kike Amonarizen umorea

Amona ospitalean

Amona ospitaleko ohean etzanda dago, inguruan medikua, abokatu, senarra eta seme-alabak dituela. Denak noiz itzaliko den zain daude, herentzia banatzen hasteko. Bat-batean, amona esnatu egin da. Ingurukoei begirada mehatxagarritz so egin eta oihuka hasi da:

– Lapur zikinak, hiltzaile malapartatuak,



putre lotsagabeak, hiena kakajale alaeak!

Egindako ahaleginaren nekeaz, ordea, berriro etzan eta lo seko geratu da. Eta orduan medikuak beste guztiei:

– Ematen du bixkortzen ari dela... Ezagutu egin zaituzte!

Soluzioa

D	U	B	A	O	L	A	I	N	A
B	I	L	H	A	I	N	A		
B	I	L	H	A	I	N	A		

Dena
astiroago
doan garaian




Gipuzkoa, bizkor

Donostiako Bigarren Ingurabidea

Gipuzkoako errepideak goitik behera aldatuko dituen Donostiako saihsabide "berria".

Azken belaunaldiko 17 kilometroko autobide honi esker, 40.000 ibilgailuk baino gehiagok ez dute Donostiako saihsabidea igaro beharrik izango, batez ere ibilgailu astunak eta Gipuzkoa zeharkatzen dutenak.

300 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa eta trafikoa kudeatzeko teknologia modernoak zure erosotasuna eta segurtasuna handitzeko.



GIPUZKOA

zurekin, aurrera >>

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA


Jupiterren atmosferan misterioa

2009AN HUBBLE TELESKOPIOAK hartutako irudien arabera, Jupiterren hego hemisferioan dagoen eraztun arrea desagertu egin zen hilabete batzuetan. Horren ordez hainbat orban beltz azaldu zirenez, zientzialariek bertara erorritako meteoritoei egotzi zizkieten atmosferan gertatutako aldaketak.

Aurtengo ekainaren 3an, guregandik 770 milioi kilometrora dagoen planetan flash argitsu batzuk ikusi zituen Anthony Wesley astronomo

australiarrak bere teleskopioarekin. Handik hiru egunera, Hubblek Jupiterren argazki berriak atera zituen, eta osteria ere hego hemisferioan eraztun arrea desagertu egin dela ikusi ahal izan da horietan, baina oraingoan ez da beste inolako arrastorik agertu, ez orban beltzik ez deus ere. Zientzialariak harrituta daude eta hainbat hipotesi hasi dira plazaratzen. Esaterako, eraztun arrearen gainean amoniakozko kristalak dituzten lainoak kokatu direla; baina ezer ere ez da ziurra. Ziurtatu daitekeen gauza bakarra da Jupiterreko atmosferan gertatzen diren fenomeno izugarriak ez ditugula ondo ezagutzen.

Jupiterren eta Lurraren tamainak konparatzeko balio digu irudi honek.



Zenbat eta handiagoa izan, orduan eta denbora gehiago jaten?

ANIMALIAK ZENBAT ETA HANDIAGOAK IZAN orduan eta janari gehiago behar dutela gauza jakina da. Baina egungo elefanteak erreferentzia bezala hartzen baditugu, 80 tona pisatzen zuten dinosauroek zenbat denbora behar zuten egunero jateko? Aspaldi ari dira ikerlariak galdera horren erantzuna topatu nahian.

Egungo animaliek janaria xehatu egiten dute. Dinosaurio erraldoiek ere janaria xehatu izan balute, gutxienez eguneko 30 ordu behar izango zuten jateko. Hori posible ez denez, garbi dago dinosauroek irentsi egiten zutela janaria eta digestio berezia izango zutela. Burua ere, proportzioan, egungo animaliena baino txikiagoa zuten, ez baitzuten haginik behar, baina birika izugarriak zituzten euren gorputz erraldoiak arintasunez mugitu ahal izateko.



PREHISTORICPARK.BLOGSPOT.COM

Babeslea: iametza Interaktiboa

Gizakion afrikar jatorriaz zalantzak

Washington-eko Unibertsitateko (St. Louis, AEB) Alan R. Templeton irakaslearen arabera, orain gutxi gizakiaren ADNaren eboluzioari buruz argitara emandako analisia ez omen da zuzena, eta beraz, hortik ondorioztatutako guztia berregin beharra dago. <http://ttiki.com/14518> (Gaztelaniaz)

Gezurrezko begiak autodefentsa gisa

Costa Ricako tximeleta espezie bateko kideek, txoriengandik babestu ahal izateko, itxura beldurgarria ematen duten begi faltsuak garatzen dituzte. Hurbiletik ateratako argazkietan ondo ikus daitekeenez, tximeletek beste animalia baten itxura hartzen dute sistema honen bidez.

<http://ttiki.com/14519> (Frantsesez)

Nola neurtu futbolarien kalitatea?

Chicagoko (AEB) Northwest Unibertsitateko Luis Amaral ikerlariak garatu duen programa informatiko batek futbolarien ezaugarriak neurtzeko aukera emango du. Amaralek esan duenez, futboleko oso datu estatistiko gutxi biltzen da, AEBetan arrakasta duten talde-kirol profesionaletan ez bezala.

<http://ttiki.com/14520> (Frantsesez)

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Koalak badaki

ANIMALIA GOSETIEN hortzetatik babesteko, arantzaz gain, azpijan eta azpilan ugari egin dute landareek. Begientzat agerikoak diren elorri zorrotzak baino leunagoak, finagoak diren mugak eratu dituen landare asko da.

Pozoiak, adibidez. Hortzak ez dira jabetuko, baina barrunbean ederki igarriko dio animaliak pozoia duen hostoari heltzen badio. Pozoi batzuk triapak nahasi eta goragalea edo beherako-arekin pasako dira, baina badira lurpera eramango gaituztenak ere. Horra kulturaren garrantzia, lur batean ikasitakoa belanez belauen doana. Honela, hagina (*Taxus baccata*), kuku-praka (*Digitalis purpurea*), irabelar otseria edo pozoiduna (*Aconitum napellus*), heriotzorria (*Nerium oleander*), belaikia (*Atropa belladonna*), piko-zoro edo asma-belarra (*Datura stramonium*), erabelar edo txerri-baba (*Hyoscyamus albus*), akain-belarra (*Ricinus communis*), tabakoa (*Nicotiana tabacum*), asta-mahats ale gorria edo indargoia (*Bryonia dioica*), otsababa arra edo lupu-belarra (*Helleborus foetidus*), astaperrexil handia edo otzerri-belarra (*Conium macu-*

latum), uretako astaperrexila (*Cicuta virosa*), azpelarra (*Colchicum autumnale*), ereinozttoa (*Daphne mezereum*) eta adar luze bat baita hilkor ere izan dakigukeela

badakigu. Hostoak, azala, fruituak, sustraiak, bakoitzak berea pozoitzen du, eta guk, berdejaleok, jakin egin behar...

Koalak badaki. Koalak eukalipto-hostoa besterik ez du jaten. Eta eukalipto, eukaliptoak pozoitsuak dira. Koala bizi den Australian 600en bat eukalipto espezie izango da; horietatik 30 inguru jaten du martsupial honek. Hosto usaintsu horiek toxina desatseginak dituzte, baina koalaren gor-

putza horietara egina da. Urtebete baino gazteago ko historik ez dute nahi izaten, jaki pattala baita. Urtea eta urte eta erdi artekoak jaten dituzte, zahar-ragoek pozoi hilkorra garatzen dute (azido prusi-koa, zianuroa). Besterik jaten ez eta jakin behar... Koalaren kultura. Amak kumeari bere kakak ematen dizkio jaki. Hesteak bizitza guztian landu behar ko dutenera ume-umetatik jar daitezen. Dakien tri-pak badaki.



WWW.MINIFAUNA.COM

%95

Munduko laugarren uharte handiena, Madagaskar, hamazazpi estatu mega-anitzetako bat da.



Madagaskar, satelitetik egindako irudian.

Bere lurretan aparteko espezie aniztasuna bizi da. Munduko espezie guztien hogeitik bat bertan badela diote, eta horien hamarretik zortzi endemikoa da, hau da Madagaskarren besterik ez da bizi.

Bada, gizakia duela 1.500 urte iritsi zen paradisu honetara eta tarte honetan bertako basoen %95a suntsitu dugu.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Lore-lan
Lurez S. Coop.

Lorezaintza proiektuak
Mantentze-zerbitzua

Tel. 609 42 45 47 · Faxa: 943 79 49 12 • lorelan@euskalnet.net


Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Spyclists, 1937ko nazien tourra

Arrastoak

Katyneko dokumentuak agerian



Ezkerrean, hitleriar gazteriaren afixa. Goian, 1937ko udan Ingalaterrara bizikletan ibiltzera eta informazioa biltzera joandako gazte nazietako batzuk.

BRITAINA HANDIA, 1937KO UDA. Dozenaka hitleriar gazte iritsi ziren, hogeiko taldeetan banatuta, oporrak batetik bestera bizikletan pasatzeko. Cambridgen, Oxforden, Londresen eta beste hainbat gune historikotan izan ziren eta Eskozia zein Galesen ere ibilaldiak egin zituzten.

Baina zenbaitek susmatzen zuen nerabe naziek, turismoaz eta kirolaz gain, beste asmo batzuk zituztela. Urte bereko martxoan *Daily Herald* egunkariak Txirrindulari Nazien Elkarteko panfleto bat eskuratu zuen. Esku-orriak honelaxe zioen: "Memoriza itzazue puntu historikoak, hala nola kanpandorreak, dorreak eta zubiak, gauez aurkitzeko moduan". Informazio topografiko baliotsua lor zezaketen, horretarako baliabide teknikoak mugatuak ziren garaian. Egunkariak *Nazis must be spyclists* (naziek txirrindulari-espioiak izan behar dute) izenburuko artikulua baten bidez salatu zuen bisitaldi turistikoa berezia.

MI5 britainiar espioitza zerbitzua alemaniar txirrindulari taldeen atzetik

hasi zen. Guztira hogeikideko zazpi talde identifikatu zituen zerbitzu sekretuak. Baina handik urte gutxira gerra piztuko zela susmatzen ez zutenek, segimendua ez zen sakonegia izan.

Datu geografikoak biltzeaz gain, hitleriar gazteek bertakoen joera politikoei buruzko informazioa bildu eta "lagunak" egiteko agindua ere bazuten. *The Birmingham Post* egunkariak zioenez, Tamswoertheke biztanleek iritzi ona zuten "gazte alemaniarrei eta beren jokamolde egokiei buruz".

Beraz, lagunak egitea lortu zuten, boy scouten artean bereziki. Uda amaituta, urte bereko azaroan, scout mugimenduaren sortzaile Robert Baden Powell bera hitleriar gazteen buruzagi Lauterbach Hartman-ekin eta Joachim von Ribbentrop kanpo ministro naziarekin bildu zen Londresen. Alemaniarrek liluratuta –Ribbentrop "xarmagarria" zela adierazi zuen–, Baden Powell prest agertu zen gazte ingeles eta alemaniarren arteko harremanak sustatzeko, eta Hitlerrekin elkarriketa bat izateko proposamena onartu zuen.

Britainiar Gobernuak bileraren berri izan zuenean, kanpo ministro Lord Cranbourne errotik etenarazi zituen scouten eta hitleriarren arteko harremanak. Eta txirrindulari naziek ez zuten beste itzulirik egin Britainiar Uharteetan.

1940ko martxoan, SESBk Polonia inbaditu eta gero, Stalinekin 15.000-25.000 preso poloniar exekutatzeke agindua eman zuen. Ondorengo hilabeteetan horietako batzuk Smolensk-eko NKVD presondegian hil zituzten, baina gehienek Katyn inguruko basoetan jaso zuten tiroa buruan. SESBk sarraskia burutu zuela ukatu zuen, 1989an erantzukizuna onartu zuen arte.

Iaz *Katyn* izenburuko filma (azpian, filmaren kartela) estreinatu zen gertaera gogorazteko eta pasa den apirilaren 10ean gaia komunikabideetara itzuli zen, Poloniako presidentea Lech Kaczynski, sarraskiaren 70. urteurreneko ekitaldietara bidean, hegazkin istripuan hil zenean.

Orain errusiar agintariak gertakariari buruzko dokumentuak desklassifikatu eta argitara eman dituzte (<http://rusarchives.ru/publication/katyn/spisok.shtml>).





Ipar Euskal Herriko datuak

Hamar urteko hutsunearen ondoren, estatistika berriak

Frantziako estatistika eta ikerketa ekonomikoen erakundeak, INSEEk, Ipar Euskal Herriko udalerrien errolda eguneratu du. Zehazki, 2006ko datuak kaleratu ditu, eta hamar urteko hutsunearen ondoren, lurraldearen bilakaera sozio-demografikoa zein izan den ezagutzeko tenorean gara.

URKO APAOLAZA

ERROLDA batek ez du soilik biztanle kopuruaren edo migrazio mugimenduen berri ematen. Enplegua, etxebizitza, familia egitura, ikasketak... horren guztiaren inguruko datuak jakin daitezke zentsuak bildutako informazioaren bidez. INSEEk 2006ko datuak kaleratu zituen iaz, azkeneko eguneraketa egin eta hamar urtera. Datuok udalerrri bakoitzari dagozkie, eta ondorioz Ipar Euskal

Herria bere osotasunean aztertze-ko parada ematen du.

Gisa horretan, azken urteetan Ipar Euskal Herriko zonaldeetan izandako bilakaera sozio-demografikoa agerian geratu da, lehenengo joerak berretsiz batzuetan, jite berriak azalduz bestetan. Esaterako, Xabier Isasi Gaindegia zuzendariaren hitzetan, kezkagarriak dira barnealdea jasaten ari den hustutze demografikoa –datu

absolutuetan, joera hori emekitu egin den arren azken hamarkadan– edota industria egiturak izan duen ahultzea.

Hori guztia aztertze-ko bi adituk artikulu bana ekarri dute gura. Daniel Udalaitez ekonomialari eta kazetariak Iparraldeko azkeneko datu objektiboak aurkezten ditu; eta Eguzki Urteaga soziologoak adierazle horien gaineko iruzkina egin du.

Iparaldeko argazki berritua

DANIEL UDALAITZ

IPAR EUSKAL HERRIKO ZENTSUA 2009an eguneratu da. Horrek posible egin du lurralde horren argazki sozio-demografikoa berritzea, 1999tik ez baitzen horrelakorik gertatzen. Gaindegia gizarte eta ekonomia behategiak, txosten batean eta *+i Data* buletin estatistikoan laburbildu ditu datuon gakoak. Horrez gain, Ipar Euskal Herriko argazkia Baionako Merkataritza eta Industria ganberak helarazitako informazioarekin osa liteke.

Errealitatetik gertuago dagoen argazkia

Ez da erraza Euskal Herriko argazki globala egitea angelu estatistiko guztiak erakutsiz. Ez da batere erraza, ezta ere, herrialdeko bakoitzeko argazkia egitea. Arrazoi nagusia da gure lurraldea administrazio ezberdinen menpe dagoela, Espainiakoa, Frantziakoa, Euskal Autonomia Erkidegokoa eta Nafarroako Foru Erkidegokoa; eta badaude lokalagoak diren beste hesi batzuk. Beraz, zaila izaten da berezko nazio estatistika aurkitzea, eta horrek oztopa-

tu egiten du Euskal Herriaren ikuspegi globala aurkeztea.

Testuinguru horretan, Gaindegia Iparraldeko errealitatera hurbiltzeko argazkia aurkeztu berri du. Orain arte genituen datuak 1999koak ziren, eta orain, 2009an eguneratutako eroldaren bidez, Gaindegia argazki hori berritu du. *+i Data* publikazio sintetikoan Biztanleria, Familia, Formazioa, Enplegua eta Etxebizitzari buruzko estatistikak kaleratu dituzte eta www.gaindegia.org helbidean daude ikusgai.

Despopulazioa barnealdean

Iparraldeko biztanleria 2006an 280.046 pertsonak osatzen zuten. Horietatik, 165.541 kostaldean bizi ziren, beste 73.627 bitarteko zonaldean, eta 40.878 barnealdean. Datu horien azkeneko 40 urtetako bilakaeraren analisia eginenez ondoriozta liteke kostaldeko populazioa %1,3 hazi dela (35.512 pertsona gehiago) eta bitarteko zonaldekoa %1,8 (32.882 pertsona gehiago). Aldiz, barnealdean duela




40 urte baino 7.000 pertsona gutxiago bizi dira.

Bertako eta atzerriko biztanleriari dagokionez, INSEEn (Frantziako estatistika eta ikerketa ekonomikoen erakundea) arabera, momentu honetan gisa honetan dago: kostaldean 155.521 lagun dira bertakoak eta 10.020 atzerrikoak. Bitarteko zonaldean bertakoak 72.264 dira eta atzerrikoak 1.363. Barnealdean, berriz, bertako 45.150 pertsona bizi dira eta atzerriko 813 besterik ez. Hego Euskal Herriarekin, konparazioa, Hegoaldean 2.593.201 pertsona dira bertakoak (2007ko datuak dira) eta kanpokoak, aldiz, 154.445. Hau da, Hegoaldeko biztanleriaren %5,6 atzerritarra da.

Gazteria tasa eta zahartzea

Iparraldeko kostaldean populazioaren %30,7a 30 urtetik beherakoa da eta %28,5a 60 urtetik gorakoa. Bitarteko zonaldean, 30 urtetik gorako biztanleak %33,5 dira eta 60tik gorakoak soilik %22,7. Barnealdean, %29,6 dira 30 urtetik behera dituzten biztanleak eta

Iparraldeko hainbat datu estatistiko



Zerbitzuak, lehen aktibitate ekonomikoa

Zerbitzuen sektorea Ipar Euskal Herriko aktibitate ekonomikoen artean lehena da, enpleguen %46,4rekin. Horrela azaltzen du Baionako Merkataritza eta Industria Ganberak 2009an kaleratutako *Le Pays Basque en chiffres-Ipar Aldeko Zenbakiak* txostenak. Sektore horretan 50.577 lagunek egiten zuten lan, 12.907 enpresatan. 50 lagunetik gorako 115 lantegi daude eta guztira 17.650 langile enplegatzen dituzte. Zerbitzuen sektoreak aniztasun handia du, baina aldi berean zerbitzu espezializatuak dira, batez ere osasunarekin eta higieziekin lotutako aktibitateetan.

Merkataritzan lan egiten dutenak %17,9 dira, eta Iparraldean enplegu gehien duen bigarren sektorea da. Guztira 19.514 langile ari dira merkataritzan, 4.708 enpresatan banatuak. Batez ere, merkataritza orokorra gailentzen da. Sektoreak merkatal dentsitate nabarmena du: 1,25 metro koadro biztanleko (Akitaniako batez bestekoa 1,30 metro koadrotan dago eta Frantziakoa 1,10 metro koadrotan). Baiona-Biarritz-Angelu ardatzak 350.000 biztanle ditu eta Iparraldeko merkatal erakargune nagusia da.

Industriak enpleguaren %13,5 biltzen du, 14.725 lanpostu 1.825 enpresetan, eta enpresa horietatik 37tan 50 langile baino gehiago ari dira (6.425 langile guztira). Industriaren barruan aeronautika sektorea aipatzekoa da, Dassault Aviation korporazioari atxikitako 2.000 enplegu eta 40 enpresa baitaude. Horrez gain, metalgintza ere garrantzitsua da Ipar Euskal Herrian, batez ere siderurgia



Baionako Merkataritza eta Industria Ganbera

eta altzarigintzarekin lotuta, 3.000 langile ari baitira zeregin horretan. Elikagaien industriak ere pisu handia du Iparraldeko barnealdean, haragia, esnea eta gozogintzaren arloan, 3.000 lanpostu inguru sortuak ditu sektore honek, ehun enpresa baino gehiagotan banaturik.

Turismoa uztaila eta abuztuko oporraldian biltzen da batez ere, 2.082 lantokitan 9.000 lagun ari dira lanean arlo horretan. Iparraldeko eskaintza turistikoak garrantzi

handia du. 86.740 oheko gaitasuna dute bertako ostalduak, baina 2006tik %1,5 murriztu da kopurua. Dena den, turismoa mantendu egin da, eta batez beste egunean 33.000 bisitari izaten ditu lurraldeak. Hain zuzen, 580 enpresa inguru GOazen klusterrean bildu dira.

Arrantzak ere badu eraginik, izan ere, 11,7 milioi euro sortzen ditu, 4.626 tona arrain salduz urtero. Baina kopuru hori gutxituz doa, nahiz eta itsasontzien kopurua mantendu egin den 2006an flota murriztu zenetik. Arrantza-leen kopurua 2.260tik 1.905era jaitsi da.

Azkenik, artisautzaren sektoreak hala nolako dinamismoa erakutsi du, enpresen kopurua %2 igo baita urtero. Horrela, 2006an 5.653 langile ari ziren eta 5.896 2008an. Artisautzako hazkundera eraikuntzari lotutako aktibitateengatik uler liteke, baina sektorearen etorkizuna aurrikusteko garrantzitsua izan litekeen datu bat kontuan eduki behar da: 2008an Iparraldeko artisauen %17,6k 55 urte baino gehiago zituen.

%23,7 60 urtetik gora dituztenak. Hegoaldeko kasuarekin alderatuz -30 urtetik beherakoak %24 eta 60tik gorakoak %23,7- ikus daiteke gazteria tasa altuagoa dela Iparraldean, eta zahartzea aldiz, antzekoa.

Adinaren arabera enpleguaren datuak ere eskura dauzkagu. Eta garbi ikusten da langileen gehiengoa 25-65 urte tartean dagoela, %80,1 hain zuzen. Profesioaren arabera enplegua honakoa da: 35.914 lagun enplegatutako dira; 26.302 bitarteko langileak; 25.068 beharginak; 11.522 goi mailako langileak; 9.775 merkataria; eta 4.592 laboraria.

Enpleguaren feminizazio tasa eta ezberdintasunak soldatetan

Iparraldeko datu berriek adierazten dutenez, enplegatuen %52,3 gizonenak dira eta %47,3 emakumeak.

Hegoaldean, aldiz, gutxiago dira emakume enplegatutakoak (%43,1, 2008ko datuen arabera). Baina ezberdintasunak nabarmenak dira sektore bakoitzari begiratuz gero: laborantzan, esaterako, gizonenak %70,5 dira Iparraldean, eta emakumeak soilik %29,5; industrian ere askoz gehiago dira gizonenak (%69,7) emakumeak baino (%30,3), baina feminizazio tasa Hegoaldekoa baino hamar puntu gorago dago (Hegoaldean industrian aritzen diren emakumeak %20,8 dira).

Eraikuntzan gizonenak %20,8 dira.

Iparraldeko industria enpleguaren feminizazio tasa, Hegoaldekoa baino hamar puntu gorago dago

izugarria handia da (%91,5), aldiz, zerbitzuetan gehiago dira emakumeak (%55,8) gizonenak baino (%44,2).

Eta soldatei dagokienez zer? Diferentziak eskandalagarriak dira. Gizonenak, batez beste 1,7 euro gehiago jasotzen dute lan orduko. Adibidez, bitarteko lanetan 13,7 euro kobratzen dute orduko gizonenak eta 11,7 emakumeen; gizonen enplegatuek 9,2 euro orduko eta emakume enplegatuek 8,7 euro; beharginak, berriz, 9,2 euro kobratzen dute gizonak badira, eta 7,9 euro emakumeak izanez gero. Baina ezberdintasun horiek are nabarmenagoak dira koadroetan. Kasu honetan, gizonak 5,7 euro gehiago kobratzen dute orduko, emakumeak baino: 24,1 euro 18,4 euroren aldean.

Gabeziak eta baliabideak Ipar Euskal Herrian

EGUZKI URTEAGA

IPAR EUSKAL HERRIAREN egoera soziala, ekonomikoa eta demografikoa aztertzerakoan, aurreiritziak eta hautemateak nagusi dira, maiz ez baitago estadistika fidagarriarik. Hori dela eta, ñabarduraz betetako azterketa zuhur bat egitea komeni da. Joera batzuk ezagunak dira, hala nola, barnealdearen hustutzea eta biztanleriaren kontzentrazioa Iparraldeko kostaldean eta Lapurdi barnealdean, turismoak daukan garrantzia eta industriaren ahulezia, erdi mailako enpleguen nagusitzea eta prekarietatearen areagotzea, higiezinaren espekulazioa eta bigarren etheen toki oparoa. Beste joera batzuk Hego Euskal Herriarekiko amankomunak dira, besteak beste, biztanleriaren zahartzea, lan merkatuaren feminizazioa, natalitate tasaren gorakada beheakada baten ostean ala gazteek pairatzen duten langabezi tasa garaia.

Baina, Ipar Euskal Herriaren berezitasunak ulertzeko, hainbat osagai gogoan izan behar dira: (1) ez daukala izaera politiko-administratiborik Voynet legeak (1997) onartzen dion *herri* izaera izan ezik, esan nahi baita ez daukala eskumen eta aurrekontu propiorik berak erabakitako politika publikoak osatzeko eta

GAIZKA IROZ



gauzatzeko, (2) ez duela unibertsitate berezirik Paueko Unibertsitateko anexoaz aparte, enplegu kalifikatuen sorrera eta sustraitzea galaraziz, (3) historikoki garapen ekonomikoguneetatik urrun kokatu dela, indus-

tria baten garapena zailduz, ala (4) Estatu zentralizatu bateko partaide dela non administrazio publikoa oso kohesionatua den eta non gizarte politikak modu uniformean gauzatuak diren. Une berean, muga egoera batean izateaz gain, beste lurraldeekin ongi komunikatuta dago eta bizi kalitate oparoa eskaintzen du. Fenomeno horiek, lurralde horren bilakaera baldintzatu dute.

Oro har, Ipar Euskal Herria lurralde erakargarria da, 1968tik 2006 arte 61.407 biztanle gehiago zenbatzen baititu, kopuru orokorra 280.044 pertsonetan kokatuz. Proiektzioen arabera, 2020an 317.000 biztanle izan beharko lituzke. Egia da, garapen horrek batez ere kostaldeari eta bitarteko zonaldeari mesede egiten diela, lehenaren populazioa 1,3 aldiz handitu baita eta bigarrenarena 1,8 bider. Lapurdiko zonaldeko biztanleriaren hazkundeak batik bat etxebizitzaren prezioaren garestitzearen ondorioa da, zonalde horretan prezioak kostaldean baino eskuragarriagoak baitira. Biztanle gehigarri hori, batez ere, kanpotik dator, kontutuan izanik, azken hamarkadetan, migrazio saldoa emendatu dela saldo naturala jaitsi den une berean. Duela 40 urte

**Oro har, Ipar euskal Herria
lurralde erakargarria da,
1968tik 2006 arte 61.407
biztanle gehiago
zenbatzen baititu**

Uztailaren 2-3-4 Euskal Herria Zuzenean festibala

EHZ
herri bat zuzenean

kazeta.info

Argazkiak, irratia emanaldiak,
kronikak... Heletatik

gertatzen ez zen gisan, gaur egun heriotza gehiago daude sortzeak baino. Halaber, kanpotik datozen pertsonak adin batekoak badira, Frantzia osoan bezala, Ipar Euskal Herriko biztanleen %31,7ak 30 urte baino gutxiago dauzka. Horrek agerian uzten du natalitate tasa nahiko garaia dela, azken hamarkadetan garatuak izan diren politika natalisten ondorioz.

Bestalde, goi mailako ikasketak dituzten pertsonen kopurua Hego Euskal Herrikoarena baino apalagoa da, bai emakumezkoen bai gizonezkoen kasuan, nahiz eta 8.000 ikasle inguruk kanpora joan behar izaten duten Unibertsitatean ikasketak jarraitu ahal izateko. Egoera hori, besteak beste, lan merkatuaren ezaugarriari lotua dago. Izan ere, behe eta erdi mailako enpleguak nagusi dira, bitarteko lanbideek, enplegatuek eta langileek biztanleri aktiboaren %77,1a osatzen baitute, koadro eta goi mailako lanbide intelektualek %10,2 osatzen duten bitartean. Aitzitik, biztanleri aktiboaren banaketa ezberdina da probintzien arabera eta adin klase zein gizatalde batzuek langabezia besteak baino gehiago pairatzen dute, gazteen eta atzerritazen kasuan lez. Izan ere, 2008an, atzerritarren langabezia tasa batez betekoa baino altuagoa da (%14,1a), emazte atzerritarren kasuan tasa hori %19,4era iristen denean.



IPARRALDEA XXI

Biztanleen %31,7ak 30 urte baino gutxiago dauzka; azken hamarkada izan diren politika natalisten ondorio da hori

Horrez gain, enpresen erdia baino gehiago zerbitzuen alorrean sortu da, higiezin eta eraikuntza sektoreek jarraitzen diote, eta sortze tasarik apalena industria alorrean kokatzen da. Ipar Euskal Herriko industria bereziki industria agroalimentarioan eta bitarteko ondasunetan oinarritzen da, eta soilik langileen %17,9a ukitzen du, EAEko tasaren erdia alegia. Enpresa gehienak txikiak dira, %92,5ak 10 langile baino gutxiago enplegatzen baititu eta bakarrik enpresen %1,2ak 50 langile baino gehiago dauzkalako. Eraikuntzaren sektoreak indar berezia dauka, 1968tik gaur egun arte eraiki diren etxebizitzaren kopurua etengabe igo baita. Izan ere, 40 urtean bi aldiz biderkatu da; etxebizitza hutsena 1,2 bider goratu da eta bigarren eskuko etxebizitza 3,6 aldiz. Kostaldean apartamentuak nagusi dira, barnealdean eta bitarteko zonaldean, aldiz, etxe gehiago daude.

Beraz, Iparraldeak gabeziak badauzka, baina gero oparoa osatzeko baliabideek ere bai. ■

argia.com helbidean, Gaiindegiak egin-dako *Ipar Euskal Herriko argazkia* txostena irakurtzeko lotura aurkituko duzu. Bertan laburbildu dituzte datu guztiak

ZIO
ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.



gure
arteak
euskaraz

Universidad
del País Vasco

BFA
DFB

BIZKAIA
BIZIA

Euskararen sustapena

Nola komunikatu asmatu ezinik

Euskara komunikatu? Nor-Nori-Nork. Izenburu hori zuten Soziolinguistika Klusterrak EHUko Udako Ikastaroetan antolatutako jardunaldiek. Euskalgintzan bada kezka, ea euskara sustatzeko komunikazio estrategietan asmatzen ari diren. Ikastaroak ez zuen inor epel utzi.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

JOSEBA KAMIO –Harman komunikazio enpresako zuzendaria– jardunaldiko bi egunetan izan zen hizlari eta bigarren egunean adierazi zuen nola bezperan batzuek esan zioten euskalgintzari egurra eman ziola. Berak argitu zuen bere asmoa ez zela egurra ematea, baina bai nabari zuena mahai gainean jartzea. Jardunaldietako bi goizetan aretoa ia beteta egon zen eta arratsaldeko mahai-inguruan jende gutxiago izan bazen ere –Donostiako Miramar Jauregitik jauzi batera dago hondartza eta eguraldia bikaina zen–, gutxi egin zuen piper.

Kafe orduan, Euskal Herri mailan lanean ari den erakunde bateko kideak aipatu zuen: “Gurean beti gai horrekin gabiltza, komunikazioa nola egin...”. Udal txiki bateko euskara teknikariak hala esan zigun: “Kamio behin baino gehiagotan entzun dut gai honi buruz hitz egin. Astindu egiten zaitu eta horregatik nator. Bai, euskara sustatzera-koan komunikazio modu betikoak erabiltzen ditugu, inertiak hartuta dauzkagu. Baina nola joko dugu teoriatik praktikara?”.

Klusterreko Belen Urangak eta Innobasque-ko komunikazio zuzendari Pilar Kaltzadak antolatu zuten ikastaroa eta ez zen izan zerutik eroritako okurrentzia. Aretoan bezala kafe orduan, nabari zen kezka; euskarari buruz zein irudi ari gara ematen? Gure komunikazio estrategiak zenbateraino dira eraginkor? Hizlariak –aipatutakoez gain Joxerra Garzia (EHU), Iñaki



Euskalgintzak hainbat komunikazio modu erabili ditu urteetan zehar euskara sustatzeko.



Iurrebaso (Aztiker) eta Igor Calzادا (Nevadako Unibertsitatea)– saiatu ziren entzuleok aditu nahi ez genituen horiek esaten.

Beltza Etxe Zurira heldu da

Gaia oso konplexua dela aitortu zuen hizlari batek baino gehiagok; komunikazioaz ari baikara eta komunikatzeko daukaguna, hizkuntza. Joseba Kamiok lehenengo egunean esan zuen mahai gainean genituen gaia eta helburua oso konplexuak direla. Bigarren egunean –aurrez egurra emana zelako bigunduta edo–, adierazi zuen gaia oso-oso konplexua dela. Pilar Kaltzadak, esperantza piztu nahian, bi aukera eman zizkigun: ausartu eta

saiatu edo gure buruaz beste egin. Beltza Etxe Zurira heltzea ere ez omen zen batere erraza izango, baina lortu dute.

Garai berrietara egokitu beharra

Nola landu euskara sustatzeko komunikazioa testuinguru berrian? Alegia, aro digitalean, mundializazioaren garaian, nola prestatu mezua? Norentzat? Nola helarazteko? Igorlea-mezua-kanala-hartzailea erdua hilda dago eta sare sozialek bestelako mila aukera ematen dituzte. Horiek baliatzen hasi al gara?

Aldaketarako gaitasunari dago-kionez, Kamiok argi esan zuen euskalgintza osoa instituzionalizatua ikusten duela, eroso. Eragileak alda-

ketarako gaitasunik gabe eta komunikazio agentziek etxeko lanak egingo dizkien esperoan somatu ditu. Harmaneko zuzendariak, berak izandako esperientzia kontatu zuen, euskalgintzari lotutakoa eta bestelakoa. Bezero gehienek asmoa da komunikazio agentzia kontratatatu eta hark komunikazio plana egitea, alegia erakundeak edo elkarteak lan gutxiago egitea, eta Kamioren ustez, guztiz kontrakoa da, komunikazio agentzia kontratatuta ere, lehen baino lan gehiago egin behar du bezeroak. Pilar Kaltzadak antzeko esperientzia izan du; erakundeak, enpresak, iragazgaitz nabaritu ditu. Kamiok galdera bota du: organizazioetan hamabost soziologo behar ditugu ala hamabost *marketero*—marketinean adituak, alegia—?

Zein da mezua?

Euskara sustatzeko komunikazio estrategiak prestatu behar dira, kanpainak pentsatu behar dira, baina zein da mezua? Joxerra Garziak Villabona-Amasa ibilbidearen adibidea erabili zuen kontu hau azaltzeko. Amasara joan nahi dugu, nahiz eta ez dakigun non dagoen Villabona. Lehenik jatorri irudia osatu beharko dugu, hau da, zein da euskarak duen irudia? Zer pentsatzen du jendeak euskarari buruz? Hori ondo ez baldin badakigu, ez dugu jakingo zein bide hartu behar dugun guk euskarari eman nahi diogun irudira heltzeko. Garziak hala esan zuen: “Guk zer pentsatzen dugun euskarari buruz berdin da, jendeak zer uste duen jakin behar dugu”. Kamiok pauso bat gehiago eman zuen: “Jendearekin ahaztu egin gara, aspaldi”.

Harman enpresako zuzendariak, bere ustez euskalgintzaren komunikazio estrategien ezaugarriak zirenak azaldu zituen. Euskalgintzak zapalduaren psikologia garatzen du, psikologia defentsiboa. Etengabe

ari da komunikazioa lantzen, baina batik bat kuantitatiboa da: matrikulazio datuak, hainbeste manifestazio... Zifren ordez bizipenak komunikatuko lituzke berak. Zapalduaren

“Guk zer pentsatzen dugun euskarari buruz berdin da, jendeak zer uste duen jakin behar dugu”

JOXERRA GARZIA

psikologiaren adierazleak lirarteke pena ematea, salaketak egitea, haserrea, oihu egitea, gaitzespena... Greenpeacekin alderatu zuen euskalgintza. Greenpeacek planeta hiltzorian dagoela transmititzen digu, baina, era berean, ekintza drastikoak burutzen ditu, aktibistek euren

“Organizazioetan hamabost soziologo behar ditugu ala hamabost *marketero* (marketinean adituak)?”

JOSEBA KAMIO

bizitza arriskuan jartzeraino. Euskalgintzak dio euskara hiltzorian dagoela, baina ekintzak ez dira horren parekoak. Ez datoz bat esandakoa eta egindakoa. Bide batez, proposatu zuen marketin linguistikoa egiteko marketin ekologikoari begiratzea, alor horretan zer ikasia badagoelako.

Belen Urangaren galdera: baina mezuak bakarrik izan behar al du? Kamioren erantzuna: “Bai, eta mesedez”. Zaila mezu bakarrik lantzea. Hizlari eta entzule batek baino gehiagok azpimarratu du hori, Joxerra Garziaren hitzetan euskalgintza

eztabaidarako baino zalapartarako biltzen da. Euskalgintza prest al dago elkarrekin euskara sustatzeko mezu bakarrik lantzeko? Pilar Kaltzadak adibide bat jarri du: merkataritzan euskara sustatzeko hainbat herri ari da kanpainak egiten. Agian antzeko kanpainak egiten ari gara batean eta bestean. Helburu bera duten eragile horiek ezin dute elkar-tu eta kanpaina prestatu?

Etxeko lanak Klusterrarentzat

Komunikazio estrategiak bai, baina aurrez lanak eginda izan behar dira. Euskara sustatu nahi duten eragileek informatuta egon beharko lukete, zertaz ari garen jakin beharko lukete. Ikastaroan, lan hori Soziolinguistika Klusterrak bete dezakeela aitortu zuten. Oinarria soziolinguistika da, eta Kamioren hitzetan, bestela komunikazio estrategiak, kanpainak, *happening* estetikoa edo dibertsionismoa dira.

Beraz, batetik, komunikazio estrategia onak garatzeko oinarri sendoak eduki beharra azpimarratu zen, eta bestetik, bai hizlariak eta baita entzuleak ere etxeko lanak ipini zizkien Soziolinguistika Klusterrari: komunikazio estrategiei buruzko teorizazio lana egin dezala eta bil ditzala gauzatu diren komunikazio estrategiak.

Komunikazio alorrean euskalgintza egiten ari denak, oro har, gaur egun balio ez duenaren sentsazioa zabaldu zen han eta hemen. Kanpainak egin eta jarritako helburuak nola ez diren betetzen ikusita, frustrazioa zabaldua dela. Kamiok entzuleei esan zien agian errezeta bila joanak zirela ikastarora, baina hark ez zeukala errezetarik.


Errezeten ordez, astindua eman ziguten entzuleei, euskalgintzari. Kamioren beldurra, egurra eman ote zigun. Segidan berak esana: egurrak erretzeko bezala eskulturak egiteko balio du. ■

Babeslea: IVAP

“IVAPen misioa da Euskadiko Herri Administrazioetako pertsonak eta antolakuntza hobetzea, administrazio eraginkorragoa, efizienteagoa eta elibiduna lortzeko asmoarekin, eta zerbitzu publikoko zenbait balio komun oinarri hartuta. Horretarako, honako hauek egingo ditu:



- Euskadiko Herri Administrazioen zerbitzura dauden langileei etengabeko prestakuntza eman eta langileak hautatu.
- Euskararen erabilera administrazioan normalizatu dadin sustatu.
- Itzulpen ofizialak eta lege- eta administrazio-arloko euskarazko terminologia.
- Hizkuntzari, legegari eta antolamenduari buruzko aholkularitza, eta antolaketa eta kudeaketaren inguruko ikerkuntza.”



Euskaltegiak kezkatuta

EUSKALTEGI homologatueta ordezkariek hedabideen aurrean kezka azaldu dute diru-laguntzak direla-eta. Batetik, Eusko Jaurlaritzak ikasturterako diru-laguntzak, azkenaldian, maiatzean jakinarazi izan ditu, baina datozen ikasturtekoak oraindik ez ditu ezagutarazi. Bestetik, euskaltegieta ordezkarien beldurra da ez ote diren murrizketak izango. Kezka agertu dutenak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako euskaltegi homologatuak dira; alegia, Batuz, IKA, Elkarlan, Deustuko Euskal Irakaslegoa, Maizpide, Bai&By eta AEK.

“Ahoa bete hots”

IZENBURU HORI duen ikastaroa antolatu dute Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak eta Mintzola Fundazioak. Ahozkotasunari lotutako lehenengo jardunaldiak izango dira eta kazetari, aurkezle, irakasle, bertsolari eta antzezleentzat izango dira, baita edozein herritarrentzat ere. Hainbat eremutan ahozkotasunak duen edo izan beharko lukeen tokiaz arituko dira, hala nola, hezkuntzan, kulturean, hedabideetan, literaturan eta haurrekin. Hizlarien artean izango dira Gorka Tolosa, Lorea Agirre eta Joan Kruz Igerabide.

BAHEA

Euskerabili blogean proposamenak eskatu dituzte euskaldun berriei hizkuntza ikasten egindako ahalegina eskertzeko. Euskara ikasten ari direnek beraiek idatzi dute erabiltzaile anonimo gisa. Hona erantzunetako batzuk:

—“Normalean euskaldun berriok nahi duguna da titulua lortzea, eta normalean, asko kostatzen zaigunez, ba lortzen dugunean horman ipintzen dugu argazki bat, gu geu eta titulua. (...) Ez ditugu euskarak dituen erraztasunak ikusten, eta azkenean denak dira zailtasunak. Hau dela kausa jendeak azkenean uzten du. Laburbilduz, behar duguna ez da zerbait materiala baizik eta egunero daukaguna, hau da, irakasleen gogo eta sostengua”.

—“Uste dut euskaldun berrioi kostatzen zaiguna hizkuntza mantentzea dela, amaieran kalean ez dugu euskara erabiltzen. Horregatik, uste dut doako lekuak egon behar dutela, hara joateko, hizkuntza praktikatzeko eta mantentzeko gu bezalako jendeekin, eta han euskaldun zaharrak egon ahal dira kaleko euskara guri irakasteko”.

—“(…) Hala ere, kamisetaren idea oso ondo iruditu zait. *Euskaldun berria naiz eta harro nago* edo antzeko zerbait jartzen duen kamiseta ateratzen bada, neuk behintzat eramango nuke, batez ere diseinu ona badauka”.

Bitxia da, *Euskerabili* blogean euskaldun berriei eskultura egitea, jai bat antolatzea... proposatzen dira, baina euskara ikasten ari diren horiek irakasleen laguntza eta kaleko euskaldun zaharren zerbitzua eskatu dute.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN**G-20: bankaren beldur**

Planetako hoge herrialde industrializatu garrantzitsuenek osatutako G-20a Toronton bildu da joan den asteburuan, eta berriz ere erakutsi du bankari dion beldurra. Ez die beldurrik izan, aldiz, defizit publikoa murrizteko neurriek izan ditzaketen ondorio sozialei. G-20ak erabaki du bera osatzen duten herrialde guztiek neurriak har ditzatela defizita erdira jaisteko 2013rako. Gutxi inporta zaio murrizketa hori lortzeko eragin ditzakeen ondorio sozialak zein izango diren. Gainerako europar herrialdeetan bezala, Euskal Herrian ere hasi gara jasaten ondorio horiek, Madrilgo eta Parisko gobernuen eskutik lehen *ajuste* urtean gaude-eta: sektore publikoan eta pentsioetan soldadak izoztea, lan erreforma, BEZa igotzea, pentsioen eta jubilazioen erreforma... Eta gainera, 2013ra heldu behar dugu defizita erdira murriztuta, G-20ak eskatzen duen bezala. Beraz, neurri antisozialak jasaten segituko dugu, osasunaren arloan bezala —kopagoa eta beste neurri batzuk—, beste arlo batzuetan.

Berak sortutako krisi finantzariotik erreskatatzeko jaso zuen laguntza publikoaren ordainetan, bankak zerga bat ordaindu behar izatea, lurperatu egin du G-20ak. Askatasuna utzi dio herrialde bakoitzari zerga aplikatzeko, eta hain zuzen hori da modu hoberena inon ere ez aplikatzeko. Ez du onartu, ezta ere, aldaketa klimatikoagatik herrialde behartsuen mesedetan zerga inposatzea transakzio finantzarioei. Soilik %0,05eko tasarekin urtean 500.000 milioi euro bil zitezkeen! Bistan denez, G-20ak ez du sartu nahi bankarekin eta inbertitzaile-espekulatzaila handiekin. Horregatik, ez du ezer egin paradisu fiskalen desagertpenaren alde —munduan sei bilioi dolar eta Espainiako Estatuan 185.000 milioi euro—, nahiz eta 2009ko azkeneko bilkuran horretara konprometitu zen.

Juan Mari Arregi

Presioa eta presioa... diruak agindu ez dezan

BIZI NAIZEN etxeko hipoteka-mailegua eskuratu genuenean, orain hamairu urte, haren jabetza eskriturak zioen etxeak 20 milioi pezeta (120.000 euro) balio zuela. Ezin genuen hori baino diru gehiago eskatu etxea erosteko maileguan. Kontua garbia zen. Bankuak gure hipoteka saldu nahi izan bazuen, paketetxoa batzen zuen paperean argi geratuko zen hipoteka-mailegu hori 20 milioi pezeta balio duen etxe batean oinarritua dagoela.

Neurri simple hori nazioarteko finantzetan indarrean jarriko balitz, AEBetako *subprime* motako hipoteken arazoa neurri handian saihestuko zen. Hau da, saltzen diren finantza produktuen informazioa gardena balitz, arazo eta diru asko aurreztuko genukeela herritarrok.

Neurri asko har daitezke finantza mundua arautzeko eta hori izan da G-20ko bilkuraren helburuetako bat, baina porrot egin dute horretan. "Bai, ongi da krisia ekarri digun finantza sektorea hobeto arautzea —dio munduko gobernu berriak bere baitan— baina oraingoz gobernu bakoitzak egin ditzala etxeko lanak berean, eta hurrengo gailurrean helduko diogu gaiari berriz".

Oso gaitza da finantzen munduaz ondo jabetzea —nik bederen ez dut ulertzen— berau ulertzeko denbora eta ezagutza handia behar dela iruditzen zait. Samurra da finantza terminologiaren oihanean galtzea. Baina XXI. mendean bizi gara, eta zarata informatiboa inoiz baino handiagoa bada ere, apur bat bilatuta inoiz baino errazagoa da informazioa eskuratzea eta ulertzea.

Finantza merkatuak arautzeko gauza asko egin daitezke: kontabilitate arau gardenak eta bateratuak lortu, nazioarteko diru mugimendu handiei zerga jarri, banku komertziala eta inbertsio bankua ondo bereizi, kalifikazio agentziak kontro-



latu... baina azkenean ez da horrelako ezer aterata G-20tik, eta herritarren hizkuntzara itzulita horrek esan nahi du finantza merkatuek oraindik ere beren esanetara dituztela gobernuak. Ez da hain harrigarria kontuan hartuta mundu mailako mailegu kopuruen %80 finantza operazioetara doala —hau da, diruarekin dirua irabaztera— eta %20 egiazko ekonomia laguntzera.

Eta orduan? "Bankuen nazionalizazioa!", diote gero eta gehiagok, baina ez sendatu ondoren berriz pribatizatzeke, baizik mailegua egiazko ekonomia eta interes sozialaren defentsan erabili dadin. Eta bai, badu logika, baina horraino iritsi barik ere bizpahiru mugimenduk oso bestelako egoera ekarriko lukete.

Adibidez, nola uler liteke kalifikazio agentzien lana hain garrantzitsua izanik, hauek finantza erakunde pribatuen soldatapean egotea? Kalifikazio agentziek definitzen dute finantza produktuen arrisku maila. Artikuluaren hasieran aipatutako gure etxearen hipoteka-maileguaren adibidean, nola liteke horrelako agentzia batek esatea oso hipoteka mailegu ona dela etxearen eskriturarik ikusi ere ez duenean? Berdin gertatzen da herrialdeen zor publikoarekin. Nola baloratuko du justiziaz, adibidez Greziak zorra ordaintzeko duen ahalmena, txarto baloratzeak dirua garestitzen duenean eta Greziaren hartzekodunek

horrela diru gehiago irabaziko dutenean? Ez da finantzetan aditua izan behar, agentzia hauen lana ulertzeko eta, beraz, interes publikoa babesteko duten garrantziaz jabetzeko. Zuzenean publikoak egin daitezke edo arauak jarri eta beren lana zorrotz kontrolatu. Zergatik ez ote dute halakorik egiten gobernuak? Menpekotasuna.

2007ko finantza krisiarekin hipoteki buruz ikasi genuen, besteak beste, eta orain estatuen kanpo zorraz, egungo krisiaren ardatzaz. Hemen ere gauza ulertezin asko gertatzen dira. Gobernuak zor publikoa jaulkitzen dute eta herritarren dirua finantza erakunde pribatuen esku uzten dute, bonoen edo dena delakoen salmenta egin dezaten. Inbertsio banku hauek, noren interesak lehenetsiko ote dituzte? Espekulazioari aurre egiteko ez ote litzateke logikoagoa bitartekari lan hori erakunde publikoek edo hauen kontrolpean egitea?

Neurri ugari beharko da, baina bizpahiru nahikoa izan daitezke gobernuen indar eta borondatea neurtzeko. *Subprime* krisia izan zen lehen, orain zor publikoarena eta hirugarren bat ere izango da, aipatu gisako neurriak hartzen ez badira. Horietako batzuk duela gutxira arte indarrean izan dira, AEBetan 1933tik 1999ra arte zutik izan zen Glass-Steagall legea, banku komertziala eta inbertsio bankuak bereizten zituen —Europar ez da bereizketa hori—. Orain Obamak ez du indarrak izan berau berrezartzeko.

Eta galdera nagusietakoa da ea zer demontre egin dezakegun herritarrok marrazo mundu horretan eragiteko. Eta erantzun bakarra dago: presio egitea gobernu eta alderdien gainean, presio etengabea, diruak baino presio gehiago egitea. Esate baterako asteartekoa moduko greba orokorrarekin.

Turkia, Europa atariko potentzia zahar-berritua

Mendebaldean, Europa barne, aitortzen zaie Brasil, Errusia, Txina eta Indiari potentzia berrien estatusa. Ez ordea Turkiari, ziurrenik aurreiritzi askoren eraginez. Baina munduko 17. ekonomia turkiarrena da, 2050ean baliteke hamargarrenak izatea, Europarako energia hodian giltza edukiko dute eta Ekialde Hurbileko potentzia bilakatu dira.

RECEP TAYYIP ERDOĞAN GALDETU eta Googlek Davoseko errieta erakutsiko dizu, 2009ko urtarrilaren 30ekoa: munduko agintari nagusiak bilduta zeuden bilkurako mahai-inguru batean nola Shimon Peres Israelgo presidenteari hiltzaile deitu eta alde egin zuen. Historiak elkarri loturik gogoratuko ditu Erdogan, Peres eta Gaza, aste haietan israeldarrekin txirtxilatua. Baina hiru minutu eta erdiko bideoa arretaz ikusentzuten duena jabetuko da Erdoganaren protestak bigarren mamia ere bazuela: Shimon Peresi 25 minutuz hitz egiten laga zioten, eta berari 12z baizik ez. Turkiako agintariei ez diete gehiago horrelakorik egingo.

Jhon Feffer nazioarteko ikerketak egiten dituen *Foreign Policy In Focus* erakunde iparramerikarreko zuzendaria da eta berrikitan *Tom-Dispatch* gune aurrerazalean turkiarren indar berria aztertu du artikulu mamitsu batean: *Stealth Superpower. How Turkey Is Chasing China in Bid to Become the Next Big Thing*, euskarara libreki ekarritik “Superpotentzia zuhurra. Nola ari den Turkia Txina harrapatzen hurrengo erraldoia izateko ahaleginean” emango lukeena.

Txinarekin alderatzea ez ote da gehiegizkoa? Dudarik gabe, biztanle kopuruei begiratuz gero. Baina Turkia jadanik planetako 17. ekonomia handiena da, 2050ean askoren ustez

hamar handien artean egongo delarik. OTANen barruan eman dituen urteetan indar handiko armada garatu du eta laster Europak kontsumitu behar duen energiaren zati handi bat Turkiatik pasako da.

Oraindik europar gehienon irudimenean “turkiarrak” aipatu eta *doner kebab*, turistentzako bazar eta langile etorkinak azaltzen zaizkigu. Euskal folklorean Zuberoako pastoraletan begi gaizto papera egiten dutenak dira türkak, Otomandarren inperio garaiko oroitzapena ziurrenik. Baina topikoetatik landa, 72 milioi biztanlerekin eta abiada bizian indartzen ari delarik, Turkiak gaurko munduan dagokion lekua bilatzen du.

Kefferrek nabarmendu duenez, indar ekonomiko eta militarraz gain, kokagunea du Turkiak bere alde, Europaren, Ekialde Hurbilaren eta Erdiko Asiaren arteko zubi-lanak egiteko aproposa, musulmanen, juduen eta kristauen artekoa egiteko ere bai. Mende berriarekin lortu du Errusiatik eta Asiatik Europaranzko energia hodiak bere lurretik pasatzea. Orain, geopolitikan dagokion lekua aldarrikatzen du, horrela baino ezin dira ulertu Istambuleko agintarien azken aldiko mugimenduak.

Turkiako eliteetan halako giro “neo-otomandarra” nabari omen da gaur, Kefferren arabera. Ankaran ia mende osoz agindu duen botere

Irudian Recep Tayyip Erdogan –ezkerretan– Turkiako lehen ministroa, Israelgo presidentea Shimon Peresi errieta egiten Gazan armada israeldarrak egindako sarraskiagatik. Suitzako Davosen gertatu zen 2009ko urtarrilaren 30ean, munduko politika eta ekonomiako agintariak biltzen diren konferentzian. Ondoko egunetako deklarazioetan Erdoganek berak goxatu zuen gertakizunari esanahi ezberdinak irakurri zitzaizkion. Dudarik gabe Gazako herritarren defentsa egin zuen Erdoganek, baina bere haserrearekin bazerman Turkiaren aldarrikapena ere berekin: solasaldia gidatzen zuen moderatzaileari errieta egin zion aurpegiratu ez zegoela eskubiderik “Shimon Peresi 25 minutu emateko eta niri 12”. Israeli Turkiari baino minutu gehiago eskaintzea, alegia. Europar Batasunerako sarbidea kasik itxiztat emanik, Ankarako gobernuak Ekialde Hurbileko potentziatzat onartu dezaten nahi du.

sekular zurruna demokrazia islamista moderatu aldera aldatu da. Barruko edozein ezberdintasun etniko edo kulturazko –galdetu kurduei edo armeniarrei– etsaitzat hartzen zituen nazionalismo hertsia hasi omen da turkiar izateaz bere buruari galdezka. Eta ekonomia mailan, urte luzeetako lozorrotik iratzarrita “kalbinista islamiarrek” ugaritu omen dira.

Bitartekaritzarako jaioak

Kemal Atatürk-ek 1924an estatu berria Frantziakoaren ereduaren gainean sortu omen zuen arren –aginte zentral sendoa, armada modernoa, pribatuaren eta publikoaren arteko bereizketa garbia– militarrek gidatu dute estatua laurogei urtez, barne kontraesanak ere gerraren lege konponduz, izan komunisten suntsiketa edo nazionalista kurduena, milaka hildako eraginez.

1980 inguruan hasi zen Turkiako trantsizioa, globalizazioaren lehen zantzuekin bateratsu. 1997an, islamistek aginte hartuko zutelakoan, militarrek estatu kolpea eman zuten. Hala ere 2002an boterera iritsi zen Justiziaren eta Garapenaren Alderdia (AKP, turkierazko sigletan) eta 2007an berretsi zuen bere indarra.

Islamista moderatuen gobernuak hasieratik honako dotrina ezarri zuten: “Zero Arazo auzokoekin”. Laster erakutsiko zituen fruituak.



Deigarriena, Irakeko Kurdistanekikoa: etsaitzat jotzeari uko egin eta laster bidali zuen lehen diplomatikoa Kurdistaneko Arbil hiriburura. Kefferren informazioen arabera gaur Irakeko Kurdistanen egiten diren inbertsioen %70 eta kanpotik erositako produktuen %80 turkiarrek omen dira.

Mantsoago mugitu dira gauzak Turkiako Kurdistanen. Kefferrek dio 1990a arte Ankarako gobernuarentzako kurduen hizkuntzarik izan ere ez bazen, orain kultur mailan irekitze prozesu bat dagoela. Karlos Zurutuza bezalako aditu batek ez lizkioke aurrerapen guztiak berdin aitortuko. Baina hori da, antza, Turkiak munduan saltzea lortu duena.

Greziarekiko gatazka aspaldiko-

an ere urratsak egin dituzte AKPko agintariek. Ez arrakasta osoz, Txipren gauzak nola joan diren ikusirik, baina beti badira keinuak eta mugimenduak. Krisi ekonomikoak menturaz harreman horien hobetzea ekar lezake, bi gobernuak behartuko baititu armadetan egiten dituzten gastuak murriztera.

Ankarako gobernuak hurbiltze ahaleginak egin ditu Armeniarekiko, nahiz eta turkiar nazionalistek barruko armeniarrei duela 95 urte egindako genozidioaren orbainak errez sendatzekoak ez diren. Siriarekiko harremanak hobetu ditu. Errusia eta Iranekikoak ere bai. Azkenik, *persona non grata*tzat joa izan den Balkanetako eskualdetik ere deitu diote Turkiari —agintari

serbiarrek!— etxeko musulmanekin bitartekaritza egin dezan.

Hala ere, erraz esaten da “Zero Arazo Auzokoekin”, laster sortzen dira arazoak. Hamasekin bitartekari egiteagatik Egipto haserretu zaie turkiarrei, Armeniarengana hurbiltzeagatik Azerbaijan kexatu, Errusiarekiko loturengatik Georgia muturtu... baina guztien gainetik, Israel sumindu da gehien Turkiarekin, hau Gaza dela-eta mugitu denean.

Gazako inbasioaren ondorioz asko hostu dira Israel eta Turkiaren arteko harremanak. Ordainetan, Turkiak nagusitasun berria erakutsi du herrialde musulmanen artean... aldi berean turkiarrek Israelen dauzkaten ehundaka negoziok eten gabe.

Energiaren bitartekari ere izan nahi du Ankarak. Otomandarren inperioak urte batzuk gehiago iraun izan balu, haren lurretan egongo ziren munduko petrolio eta gas hobi nagusiak, Irak, Kuwait, Libia... baina Turkiak ez dauka gaur horrelakorik. Europarako bidean dago, orde, eta bertatik pasatzen edo pasako dira Errusiatik, Kaspio itsasotik edo Kazajstandik datozen hodi erraldoiak: *Nabucco*, *South Stream*, *Samsun-Ceyhan*...

Eta mendebaldar asko ohartu ez garen arren, Yunus Emre Fundazioaren bidez 80 herrialdetan hedatzen du bere kultura Turkiak, turkierazko eskolak, han egindako telebista serieak, Kefferren esanetan islamismo moderatuaren babesean aski liberalak omen direnak. “Adi —dio Kefferrek— Itsaso Beltzaren eta Mediterraneoaren arteko bidegurutzeari. Berandu baino lehen, Turkia egonen da denon ahotan”. ■





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Txin-txin (diruaren hutsak)

Espainiako *Público* egunkariak ekainaren 19an argitaratu emandako datuen arabera, Nafarroa Garaia da Espainiako erkidego autonomoetan laugarrena, biztanleko zorrari dagokionez, 2.350, 20 euro dituela zor, goi nafar bakoitzeko. Espainian, Katalunia da lehena (3.341, 68 euro, biztanleko), Balear Uharteak, bigarrena (3.208,43 euro), eta Valentziar Erkidegoa, hirugarrena (3.011,41 euro). Euskal Autonomia Erkidegoa urrun dago sailkapenaren lehen postuetatik, hamaikagarrena baita, biztanleko 1.522,99 euro zor duelarik, nahiz azken urtean Espainiako erkidegoetan zorra gehien handitu duena den.

Estatistikek beti daukate egiazko alde bat (objektiboak diruditen zenbakiak, ehunekoak, kopuruak...), eta beti ezkututzen dute errealitate askotariko bat, ñabardurez josia, zeinari zenbakiak erraz egiten ahal baitiote iruzur.

Zorraren kontu honetan, adibidez, zenbakiak bere horretan onar ditzakegu, edo hainbat galdera egin giblean gorderik dituzten errealitateei buruz.

Gure etxeko ekonomia txikian badakigu zorra eskuratzen duguna baino gehiago gastatzen dugunean sortzen dela. Badakigu diru-sarrerak nondik datozen eta zenbat egiten duten, eta, gure sosetako orekari eutsiko badiogu, irteerek nora jotzen duten poliki aztertu behar izaten dugu.

Ekonomia beti funtsezkoa denez, gauzak ongi joateko, hala etxe batean nola munduan, gure etxeetako ekonomietan nola, herrietan ere hala jokatu beharko lukete agintariek –ekonomiaren tamainak erantsitako zailtasunak gorabehera–: oinarritzko baldintzetako bat izan beharko luke kontuak zertan diren argitzea.

Baina, tamalez, gutxitan mintzatzen da argi soson inguruan. Diruaren kontura, handiak baitira tabuak. Ez dugu jendaurrean kontatzen zenbat irabazten dugun. Asko irabazten dugulakoan, edo gutxiegi, isilpean uzten dugu. Maiz, gazteak etxeko egoera ekonomikoa zertan den jakin gabe hazten dira, eta lagunen artean ere zaila egiten zaigu kontu hauetaz hitz gitea.

Baina normalean isiltasunak iruzurgileei baino ez die onurarik ekartzen. Jende arruntarentzat eta ekonomia txikientzat, iluntasuna ez da errenta.



Ekonomia zenbat eta handiagoa den, ordea, hainbat eta ilunagoa bilakatzen da, eta gero eta zailagoa da jakitea harekin benetan zer ari den gertatzen.

Eta nahiz guztien sosekin osaturik dagoen dirutza publikoaren kuxaren inguruko guztiak garden-gardena izan beharko lukeen –are gehiago, afera publikoak demokraziaren izenean gobernatzen direla aldarrikatzen bada–, handitasun- edo estakuru argirik eza eta isilpea nagusitzen dira guztiena den horren gainean.

Ogasun publikoaz zerbait esaten diguten estatistikek gehiena isiltzen dute.

Esaten digute goi nafarroak irabazten duguna baino askoz gehiago gastatzen dugula. Baina ez digute argitzen gobernatzen gaituztenek zertan xahutu duten, gure izenean, gurea ez den dirutza. Los Arcoseko zirkuituarena isiltzen dute, eta Iruñeko kirol-pabilioi erraldoiarena, Gendulaingo lursailena, Sanferminen Museoarena eta ezagutzen ez ditugun




Esaten digute goi nafarroak irabazten duguna baino askoz gehiago gastatzen dugula. Baina ez digute argitzen gobernatzen gaituztenek zertan xahutu duten, gure izenean, gurea ez den dirutza. Los Arcoseko zirkuituarena isiltzen dute, eta Iruñeko kirol-pabilioi erraldoiarena, Gendulaingo lursailena, Sanferminen Museoarena eta ezagutzen ez ditugun beste hainbat karga ere



beste hainbat karga ere. Ez dute esaten, proportzio baterako, motorrak eta 4X4 ibilgailuak erosteko diru-laguntzak ematen aritu direla, liburutegietako ordutegiak zabaltzeko behar beste langile kontratatatu ordez. Eta batez ere, ez dute aipatzen hemen langileon *per capita* errenta handiagoa dela enpresaburuena baino, zergak pagatzeko orduan. Zorra nork kitatu behar duen ere ez dute esan, hori esan gabe baitoa. ■

ASTE HONETAKO

zozketa



Ondarre Landetxea

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Ondarre baserria
Segura GIPUZKOA

Tel.: 943 801 664

1



Bilboko Euskal Museoa

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

2



Zientziaren kutxagunea

4 harpidedunentzat
bina sarrera

ikeleitegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.miramont.org

3



Urki txakolina

Txakolindegira bisitaldia
10 laguneko taldearentzat

Askizu Auzoa
Getaria GIPUZKOA

www.urkitxakolina.com

4



Kirolaz Badakit

3 mahai jolas opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2235. Argia)

ARBELAITZ

- Ixabel Jauregi Alberdi (Azkoitia)

TARPOON

- Xabier Arrizabalaga Larrinaga (Ondarroa)
- Jose Garaizabal Aizpurua (Elorrio)

ILLIMANI

- Joxe Inaxio Mantzisor (Zumaia)
- Osane Larrañaga Muguruza (Zestoa)

AQUARIUM

- Juan Jabier Iturralde Maisterra (Iruñea)
- Bernardo Azpillaga Ariztimuño (Errezil)
- Patxi Xabier Gonzalez Sanz (Gasteiz)
- Maialen Carpintero Navarro (Eraso)

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEAK

- Eneko Maior Ganboa (Orexa)
- Rafael Gomez Urbiria (Donostia)
- Errenteriako Udal Euskaltegia (Errenteria)
- Jesus Miguel Zabalo Bilbao (Galdakao)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea

argia

Hegoafrikan



Lander Arbelaiz
bestelako begirada

www.argia.com/hegoafrika



Artikuluak egunero

- Lander Arbelaiz Hegoafrikatik
- Joxemari Ostolaza
- Agin Rezola
- Juanjo Olasagarre
- Bilardo

Multimedia


- Bideo, diaporama, argazki eta jokaldirik onenak

Historia

- Apartheidetik Munduko Kopara kronologia

Twitter leihoa, irakurlearen txokoa, hemeroteka...

 **argia.com**



The screenshot shows the website's layout with a header for 'argia.com' and a main section titled 'Hegoafrikaren Munduko Kopa'. It features a large photo of players celebrating, a list of authors (Lander Arbelaiz, Agin Rezola, Juanjo Olasagarre, Joxemari Ostolaza, Bilardo), and several article teasers including 'Ekainaren 23tik aurrera', 'Cape Town', and 'Mundial interestatua'. The right sidebar contains social media links and a video player.